

Berrigara



Bergara plato bihurtuta

HASI DIRA "ERTZAINAK" TELESAIL BERRIKO GRABAKETAK



MARKIEGI
autoak

Leizeaga 1
S. Lorentzo Industri Poligonoa
BERGARA
Telefonoa 943 76 35 09
Faxa 943 76 56 76



ALFA
156





UNTXI-HAZKUNTZA




ZINEGETIKA



HEGAZTI-HAZKUNTZA

IBARGYREN PENTSYAK


BIONA pentsuen biltegia eta BIOTER produktuak



ARDI ETA AHUNEZ
AZIENDAK



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



ZALDIAK



COMERCIAL BRUNET

Ozaeta, 11-13 behea - **BERGARA** (Gipuzkoa)

Tfnoa. 943 76 31 52 - Tfnoa./Faxa 943 76 70 12 - Mugikorra : 608-775501



**SALMENTA, KONPONKETA
ETA ALKILERRA**



**DEBA GARAI eta BEHEko
BANATZAILE OFIZIALA:**





Datorren aste ...ari buruz

Xabier Azkoitia / Apaiza

Egun gutxi barru Aste Santua izango da; jakina denok, edo gehienok, egun horien zain gaude. Orain dela urte batzuk Egañak bere bertso batean abesten zuen moduan, batzuk elizara joateko, beste batzuk sagardotegira eta beste batzuk Benidormera.

Nire lehiotik nahikoa "aluzinatuta" ikusten dut zer bihurtu den, ikuspegi erlijiosotik, Jainkoaren Erreinuaren alde eta jarrera etiko zibiletik, justizia eta askatasunaren alde borrokatu eta ahalgintzeagatik erahil zuten pertsonaren oroimenez egiten den jai hau.

Merkatua, merkatua da. Irratia piztuta dut eta hor dabil tertuliano bat esaten, merkatuak agintzen duen gizartean bizi garela.

Eramu Zapatuan, merkatua dagoez, neronek ere salgai jarri behar ditut, lerro hauek aprobetxatuz, erahildako hark saltzeko dituen produktuak. Azken batean, eskaintzek eta eskariek arautzen badituzte harremanak, zorte apur batekin "stock"ean dauzkadan produktoak agortu egingo zaizkit.

Iraultzaileentzat: toaila bat eta gerri onak. Legea maite dutenentzat: justizia. Askatasuna nahi dutenentzat: egi egarria. Barkatzen ez dakitenentzat: 70 aldiz 7. Gure alde hainbeste egiten duten horientzat: ezkerreko eskuak ez dezala jakin eskumakoak zer egiten duen. Kopurua neurrian jartzen dutenentzat: alargunaren eskaintza. Gaiso, infektatu, emagaldu, espetxeratu eta antzeko pertsonentzat: doan ikutu, besarkatu, musukatu eta ikutu egingo dituen norbait. Edozein eratako aberatsentzat: "Saldu duzun guztia, behartsuen artean banatu eta jarraitu niri". Erahiltzaileentzat:

"Besoak zabalik erahil zuten harengan itxaropena dugunok, ez dezagula bihurtu erahildakoa besoak zabalik egoten diren txorimalo horien antzeko"

"Barka izeaiezu Aita, ez baitakite zer egiten ari diren". Bide bazterrean erorita geratu direnentzat: samariar on bat. Bere indar hutsetan konfidantza osoa jartzen dutenentzat: oilar bat. Besteen gain norberaren erantzukizuna botatzen dutenentzat: palangana bat. Bila dabilenarentzat: gurutzean hiltzatua izan zena.

Ez dakit arrakasta handirik izango duen saiakera honek. Ia konbentziturik nago ez dela gauza handirik salduko aurtengo honetan ere, baina ez da aurreneko aldia izango, beste hainbeste gertatu omen zen orain dela 2.000 urte. Dena den, aurtun ere tenderetea jarri beharko dugu, produktuak erahil zuten hark jartzen baititu.

Ahaztu baino lehen, esan beharra dago, produktu hauek ez direla diruz erosten, bizitza-aukeraketak eskatzen dituzte ordainketa bezala.

Azkenik, gauza bakar bat: besoak zabalik erahil zuten harengan itxaropena dugunok, ez dezagula bihurtu erahildakoa besoak zabalik egoten diren txorimalo horien antzeko. **B**

barruan



Maite Aristegi

EHNEko idazkaria

"Europar sartu ginenetik egon diren erreformak makilaje hutsa izan dira"

8.



Mikel Larrañaga

Karateka

"Batuetan gogorra da lagunekin jolasteari laga eta entrenatzera joan beharra"

21.



Antonio Zabala

Forum Cinematographe taldekoa

"Aurtengo Oscarra 'La delgada linea roja' pelikulari emango notsan"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1973. Apirilaren 4an Bergarako Orfeoia Madrigo Kongresu eta Erakusketen jauregian kantatu zuen RTVEko orkestra eta abesbatzaren laguntzarekin. Odon Alonso maisu handiak zuzendu zuen kontzertua.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1932. Martxoaren 27an lehenengo Aberri Eguna antolatu zen Bilbon.

1960. Martxoaren 22an Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zen. Martxoaren 28an Donibane Lohitzunen, Agirreren hilketaren aurrean, lehendakaritza zin egin zuen Leizaolak.

1978. Martxoaren 26an Euskal Herriko lehen Aberri Eguna legeztatua egin zen.

1988. Martxoaren 23an EEBBko Bertsolarien Lehen Txapelketa jokatu zen Nevadan.

MUNDUAN GERTATUA

1904. Martxoaren 22an Daily Illustrated Mirror egunkari estatubatuarrek koloretako lehen argazkia argitaratu zuen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzan 19

2-6-10-14-25-30 (osag.40/itz.1)

Astelehena 22

5-10-25-35-36-42 (osag 31/itz.2)

Martitzena 23

17-22-39-41-43-49 (osag.26/itz.8)

Eguaztena 24

3-8-17-18-40-49 (osag.32/itz.0)

PRIMITIVA

Zapatua 20

3-5-6-36-37-48 (osag.21/itz.7)

Domeka 21 Saritzarra

15-21-27-33-35-41 (osag.49/itz.8)

ONCE

Eguakitzan 19: 34.755 (079 seriea)


Astelehena 22: 71.714

Martitzena 23: 45.071

Eguaztena 24: 35.237





Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Eguraldi kaskarra izan dugu eguakitzean, erauntsi eta guzti. Zapata eta domekan, ez du hain txarra egingo, eguraldi nahasia izango dugun arren. Ostarteak zabalduko dira, baina zero estaliak nagusituko dira. Temperatura freskoak.

Ilargiaren aldiak

-  Ilgora: martxoak 24
-  Ilbete: martxoak 31
-  Ilbehera: apirilak 9
-  Ilberri: apirilak 16

Eguzkia

Domeka, martxoak 28



Sortu: 07:09



Gorde: 19:39

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 18	16	6	0,4
Eguakitzan 19	13	7	-
Zapatua 20	12	2	-
Domeka 21	11	4	6,6
Astelehena 22	13	7	2,6
Martitzena 23	17	7	-
Eguaztena 24	19	2	5,1

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Argi eiñ

Argia eman, argitu, argiztatu.

- Argi eidazu linterniak.

- Bonbilla onek eztau argirik eitten.



Josu Okina

Ordu aldaketa

Domeka gauean, **02:00etan**, ordubete aurreratu beharko dira ordulariak; beraz, **03:00ak** izango dira. Ez ahaztu domeka gauean eginkizun garrantzitsuren bat duzuenok!



Farmaziak

Eguakitzan 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Zapatua 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Domeka 28:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Astelehena 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Martitzena 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguaztena 31:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Eguena 1:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Eguakitzan 2:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Zapatua 3:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Domeka 4:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Astelehena 5:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Martitzena 6:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Eguaztena 7:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Eguena 8:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Ogia

Domeka 28: Konde.

Eguena 1: Mizpildi.

Eguakitzan 2: Ogizun.

Domeka 4: Konde.

Astelehena 5: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99
UDALA	
Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68
BESTELAKOAK	
Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 81
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65

zorion agurrak

Berrigara 362an, **APIRILAREN 9a** eta **15a** bitarteko zorion agurrak argitaratuko dira.



Unai Urbesalgo
Martxoaren 28an
19 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Andoni Arbulu
Apirilaren 3an
18 urte.
Urte askotarako!
Lehengusuak.



Isabel Etxaniz
Martxoaren 27an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Nerea Madariaga
26an 38 urte. Urte
askotarako! Miren,
Mikel, Bat eta
famioliako beste bat.



Ion Bernal
Martxoaren 26an
urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jesus Iztueta
26an 62 urte. Urte
askotarako matxo-
te! Ilobak, Erik eta
Amaia.



Raul Ruiz
Martxoaren 27an
19 urte.
Urte askotarako!
Familia eta ilobak.




Julen Markez
Apirilaren 2an
5 urte.
Urte askotarako!
Familia eta Janire.



Janire Albizu
Martxoaren 29an
17 urte.
Urte askotarako!
Familia guztia.



Gaizka Etxaniz
Martxoaren 29an
27 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor...



Emilio Imaz
Martxoaren 26an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Idoia,
Leire eta Maika.



Xabier Aranda
Apirilaren 1ean
14 urte. Urte asko-
tarako! Osaba Juan
Kruz eta sendia.



Amaia Iztueta
Martxoaren 26an
13 urte. Urte asko-
tarako! Bat eta mai-
te zaitugun guztiok.



Asier Labaien
28an 32 urte.
Urte askotarako
eta muxu handi bat!
Amaia eta Maider.



Elisabet Gallardo
Martxoaren 27an
14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Idoia Imaz
Martxoaren 29an
3 urte. Urte askota-
rako! Amatxo eta
aitatxo.



Amaia San Torcuato
28an 6 urte.
Urte askotarako
eta muxu handi bat!
Maider eta familia.



Idoia Narvaez
Martxoaren 26an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mirentxu Maiztegi
Martxoaren 26an
17 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor...



Edurne Beitia
Apirilaren 7an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Maite eta Leire.



Kristina Longares
Martxoaren 26an
15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Olatz Esnaola
Martxoaren 28an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Inaki Goenaga
Martxoaren 27an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mirian Isado
Apirilaren 2an
9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

ESKER ONA

Mikaela Oianguren Kortabarria

Angiozarren hil zen
1999ko martxoaren 8an,
78 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Tomas Eguren Azkorbebeitia

Bergaran hil zen 1999ko martxoaren 16an,
77 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

aste santuko elizkizunak

ERRAMU ZAPATUA

19:00: Santa Marina. Meza

20:00: San Lorentzo. Meza

ERRAMU DOMEKA

09:30: San Pedro. Meza

10:30: Elosu. Meza

11:00: Labegaraieta. Meza

11:30: Santa Marina.

Erramu bedeinkapena eta Meza

12:30: San Pedro.

Erramu bedeinkapena eta Meza Nagusia

13:00: Santa Marina. Meza

20:00: Santa Marina.

Elkarteko barkamen ospakizuna

EGUEN SANTUA

18:00: Santa Marina.

Azken afariko ospakizuna

19:00: San Pedro.

Jaunaren afariaren ospakizuna

20:00: Elosu. Azken afariko ospakizuna

20:00: Santa Marina. Taldeetan otoitzaldia

21:00: San Pedro. Ordu Santua

EGUAKITZ SANTUA

10:00: San Pedro. Gurutze bidea

12:00: Santa Marina. Gurutze bidea

17:00: San Pedro.

Jaunaren heriotzaren ospakizuna

18:00: Santa Marina.

Jesusen heriotzaren ospakizuna

20:00: Elosu.

Jesusen heriotz ospakizuna

ZAPATU SANTUA

10:00: San Pedro.

Gorospenak eta Olio Sagratuen banaketa

20:00: Elosu. Jesusen piztuetako gaubela

21:00: San Pedro. Pazko gaubela nagusia

22:00: Santa Marina.

Jesusen piztuetako gaubela

PAZKO DOMEKA

09:30: San Pedro. Meza

10:30: Elosu. Meza Nagusia

11:00: Labegaraieta. Meza

11:30: Santa Marina. Meza Nagusia

12:30: San Pedro. Meza Nagusia

13:00: Santa Marina. Meza

PAZKO II. ZAPATUA (Apirilak 10)

19:00: San Pedro. Meza

20:00: San Lorentzo. Meza

PAZKO II. DOMEKA (Apirilak 11)

09:30: San Pedro. Meza

10:30: Elosu. Meza

11:00: Labegaraieta. Meza

11:30: Santa Marina. Bataioak

12:30: San Pedro. Bataioak

hildakoak

BERGARA

Fastino Laskurain Askasibar

Martxoak 17, 73 urte

Bonifacio Olabarria Larrañaga

Martxoak 22, 51 urte

ANTZUOLA

Justo Lizarralde Eskibel

Martxoak 21, 82 urte

jaiotakoak

BERGARA

Eneko Etxeberria Ruiz

Martxoak 12

Maria Zubia Torre

Martxoak 15

Hossana Diez Millan

Martxoak 15

ANTZERKIA

► **"Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores"**, antzerki eta musika ikuskizuna martitzenean, hilak 30, 18:00etan Elorriko Arriolan.

MUSIKA

► **Imanol** kantariaren "Hori bera da denen ixoria" gaur, eguakitza, 22:30etan Elorriko Ateneon.

► **Gigatron eta Pitaja blues band** taldeak gaur, eguakitza, 22:00etan, Jam aretoan.

► **One minute silence** taldea bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan. Ondoren, 1:00ean, **Poti y los tontos** Go-Jamen.

ERAKUSKETA

► **Usa Mendikuter**en margoak Nahikari tabernan.

► **Mugen gainerik** taldearen eskutik, "Afrika gure etorkizuneari" erakusketa apirilaren 4ra arte Kultur Etxean.

► **Xabier De Zeriren** eskulturak Sopelako Kultur Aretoan martxoaren 30era arte.

► **Ion Andoni Urisabel**en margoak Bilboko Juan Manuel Lumbreras arte galerian (Henao, 3), apirilaren 10era arte, astelehenetik zapatara,

Erramu Zapatuko feria

Noiz: zapatuan, goizeko 9:30etatik aurrera

Erramu Zapatuko feriaren beste edizio bat egingo da bihar. Goizeko 9:30etan Ibargarai kalean zabalduko den ganadu erakusketan 110 abelburu inguru izango dira ikusgai eta herriko partaidetzari dagokionez, Arantzazu Jaka (Ubera), Juan Maiora (Basalgo), Garikoitz Badiola (Elosu), Andres Mujika edota Iru-Mendi elkar-teak euren behiak erakutsiko dituzte. Era berean, Euskal Labeleko produktuak izango dira salgai goizean zehar: Idiazabalgo gazta, Zeraingo Lumagorri baserriko oilaskoak edota Ibarako piperrak.

Errioxako ardoak eta sagardoa ere dastatu ahal izango dira eta Aramaioko Oleta auzoko Maria Luisa Gonzalez de Audikanaren eskutik gazta egiteko prozesua ezagutzeko aukera izango da. Txo-txongiloak ere feriako protagonista izango ditugu: Jardun elkar-teak antolatutako txorimalo lehiaketan 35 bat partaide izango dira aurten eta sari banaketa 12:30etan egingo da. Ordu erdi beranduago haragitarako ganadu eta ardi latxen erakusketa izango da Ibargarain eta, jarraian, Azpillaga eta Agirre Aranzadi Ikastolako patioan bertsotan arituko dira.

Arratsaldean, 17:30etatik aurrera, harri-jasotzaileen eta aizkolarien saioa izango

da Seminarioan. Goenatxo II.a 250 kg.ko errektangularra, 150 kg.ko kubikoa eta 100 kg.ko harri bolarekin arituko da eta Elosukortak 200, 125 eta 100 kg.ko harriak ekarriko ditu. Larretxea eta Olasagastik, bestalde, zortzina kanaerdiko moztu beharko dituzte aizkoran. Ohi den bezala, feriarri amaiera emateko bertso saioa izango da gauean Frontoian, 22:15etan, Egaña, Lizaso, Peñagarikano, Sarasua, Iruzu eta Mendiluzeren partaidetzarekin. Gai-jartzailea: Joxerra Gartzia.



Ferian 110 abelburu inguru izango dira ikusgai.

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

IKASTAROAK

► **Fandango eta arin-arin ikastaroa** helduentzat, Moises Azpiazu dantza taldearen esku-

tik, zapatu goizetan 11:00etatik 12:30etara. 943 76 15 40.

► **Saltsa eta merenge has-tapen ikastaroa** apiriletik aurrera Jam-en, eguenetan (20:00-21:30). 943 65 35 81.

► **Islada Bideo Tailerrak**

antolatutako **photoshop ikastaroa** izango da apirilaren 12tik 23ra bitartean, astebar-ruan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00era. 943 77 91 58.

► **Pol-Pol Argazki Taldeak** antolatuta, zuri-beltzeko tekni-

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

leki buruzko bost asteko ikastaroa Gorka Salmeron argazkilaria-
riaren eskutik, maiatzaren 3tik
aurrera, astelehenetik ostegu-
nera 19:00etatik 21:00etara.
Plaza mugatuak. Izen-ematea
(10.000 pezeta): 943 76 30 90.

LEHIAKETAK

► **II. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Kartelen gaia zeze-
nak eta Bergara izango da.
Lanak Kultur Etxean aurkeztu
beharko dira, apirilaren 20a
eta 30a bitartean. Irabazleak
150.000 pezeta eta plaka esku-
ratuko ditu. 943 77 91 58.

► **Pazkuetako pegatina lehiaketa** deitu du Jardun
Elkartek. Taberna eta ikaste-
txeetan lagatako kaxetan laga
daitezke jaien inguruko esal-
diak, apirilaren 21era arte.

DEIAK

► **San Xosepe elkarteak mendi irteera** egingo du api-
rilaren 7an, Urkulu-Larriño-
Bedoña-Arrasate. Goizeko
Betan Beheko Estazioan.
Bestalde, **Donostiako La Perla**
termetan bainuak har-
tzeke autobusak izango dira
apirilaren 26an, 28an eta
30ean. Izen-ematea
943 76 21 40 zenbakian.

► **Pol-Pol Mendizale Taldeko gazte sailak** Aste
Santuan akanpada antolatu du
Pirinioetan, apirilaren 1etik
6era. Izen-ematea Pol-Poleko

bulegoan. Argibide gehiago
943 76 48 51 zenbakian.

► **Hitzaldia.** Herri Batasunak
antolatuta, egoera politikoari
buruzko hitzaldia martitzenean,
19:30etan, Artatsen.

► **Udalak** jakinarazi nahi du
ibilgailuen gaineko zergaren
kobrantzarako borondatezko
epea martxoaren 31ra arte
izango dela zabalik.

KINTADAK

► **1940ko kintoen** bazkaria
apirilaren 11n Antxonin jatetxe-
an. Aurretik, ordubatean meza
Santa Marinan eta ondoren
Sagarpen bilduko dira. Izen-
ematea Antxonin bertan.

► **1937an jaiotako**en afaria
apirilaren 17an Azpeitxi jate-
txean. Izen-ematea Kortazar
tabernan.

► **1964an jaiotako**en afaria
apirilaren 17an Tartufo jatetxe-
an. Izen-ematea Plazako kios-
koan edota 607 410 409 (Peli)
telefono zenbakian.

► **1958tik 62ra** (biak barne)
bitartean **jaiotako** angiozarta-
rren afaria apirilaren 17an
Ortzi jatetxean. Izen-ematea
943 76 54 81 zenbakian.

► **1960an jaiotako** bergara-
rren afaria maiatzaren 8an
Txuringo jatetxean. Izen-ema-
tea (2.000 pezeta) maiatzaren
1a baino lehen Kutxako
0010815637 kontu korrontean.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Entre las piernas

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Practicamente magia

Eguena, hilak 1: 19:30, 22:30.

Zapatua, hilak 3: 19:30.

Mas fuerte que su destino

Eguakitza, hilak 2: 19:30, 22:30.

Zapatua, hilak 3: 22:30.

Celebrity

Domeka, hilak 4: 17:00, 19:30, 22:30.

Astelehena, 5: 17:00, 19:30, 22:15.

Martitzena, hilak 6, ik. eguna: 19:30.

La tentacion vive arriba

Eguena, hilak 8, zine-kluba: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

La delgada linea roja

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 19:00, 22:00.

Domeka: 19:00, 22:00.

Astelehena: 19:00, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:00.

Jack Frost

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR. Unzaga

Bichos

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Leyenda urbana

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Entre las piernas

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

ENTRE LAS PIERNAS

Zuzendaria: Manuel Gomez
Pereira.

Aktoreak: Javier Bardem,

Victoria Abril, Carmelo Gomez.

Komedia alde batera laga eta
sexu-adikzioaren inguruko
thrillera egin du Gomez Perei-
rak, aktore hirukote parega-
bearekin.

PRACTICAMENTE MAGIA

Zuzendaria: Griffin Dune.

Aktoreak: Sandra Bullock,

Nicole Kidman.

Gaur egungo aktorea ospe-
tsuenetako bi fantasia eta dra-
ma tartekatzen dituen filmean
ikusteko aukera.

MAS FUERTE...

Zuzendaria: Marshall

Herskovitz.

Aktoreak: Catherine McCor-
mack, Rufus Sewell.

XVI. mendeko Venezian giro-
tutako amodiozko istorioa.

CELEBRITY

Zuzendaria: Woody Allen.

Aktoreak: Kenneth Branagh,
Melanie Griffith, Leonardo

DiCaprio

Gaurko gizartean ospea azka-
rregi lortzen duten pertsonajei
buruzko satira errodatu du
Allen-ek zuribeltzean.

LA TENTACION VIVE ARRIBA

Zuzendaria: Billy Wilder.

Aktoreak: Marilyn Monroe,

Tom Ewell.

1955ean Wilderek errodatu
zuen komedia jatorrizko ber-
tsioan eta cinemascopie for-
matoan ikusteko aukera.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LONBIDE

ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Otsailaren 9an lehen alaba izan zuen arren, Maite Aristegi EHNEko idazkaria gertu-gertutik jarraitzen ari da nekazarien inguruko gaiak. Bruselan negoziatzen ari den Agenda 2000 hitzarmenaren inguruan egin dugu berba; benetak aurrerapausuak emateko aukera paregabea galdu dela dio.

G. Zein balorazio egin go zenuke Agenda 2000 delakoari buruz?

E. Europar sartu ginetik egon diren erreformak makilaje hutsa izan dira eta horren ondorioak berdintsuak dira hemen eta Europa: baserritarrak gero eta gutxiago dira (300.000 lanpostu galtzen dira urtean Europa), herriak desagertzen ari dira, produktuen kalitatea hobetu beharrean jaisten doa... Egoera honetan, Europako laguntzak oso gutxiren eskutan jartzen dira. "Baserritarren" (industrialak ia denak) %4k laguntzen %40 jasotzen du eta hori ez da bidezkoa. Orain erreforma etorri da eta aukera ona zen behingoz horri buelta emateko. Orain arte onartutakoak partxeak besterik ez dira izan.

G. Zer hobetu zitekeen?

E. Baserri bakoitzak kobratu ahal dituen laguntzetan topea jartzea eta ematen diren laguntzak modulatzeta. Baina benetan landu beharko ziren gaiak ez dira landu eta aukera historikoa galdu da.

Austriarren proposamena interesgarria zen: gureen moduko baserriak dituzte eta jartzen zuten topea egokia zen, baina atzera bota dute. Frantsesek, laguntzak jaisten joatea proposatu dute eta alemanak, aberatsak direnez, kofinantziazioaren alde azaldu dira: plangin-

MAITE ARISTEGI
EHNEko Idazkaria

"Europar sartu ginenetik egon diren erreformak makilaje hutsa izan dira"



Maite Aristegi bi urte daramatza EHNEko zuzendaritzan lanean.

tzak aurrera eramateko laguntzak jasotzeko aukera izan eta beraiek beste hainbeste jarri horrelakoetan. Toki aberatsetan (Baviera adibidez) mendi nekazaritzako laguntzak ikaragarriak dira. Aberatsek hori egin dezakete baina besteek... Eta horrek Europaren elkartasun izpiritua hankaz gora jartzen du.

"Europako laguntzak gutxiren eskutan jartzen dira. Oraingo erreformarekin aukera ona galdu da egoera horri buelta emateko"

G. Esne kuotarekin zer gertatuko da?

E. Esne kuota handitu egingo da, baina ez hementxo bakarrik, Europa osoa baizik eta hori txapuz hutsa da, merkatua ez delako erregulatzen. Hala ere, arazo larriena prezioarena da. Zertarako kuota handitu prezioak jaisten badira? Prezioak jaitea kalitatearekin kalterako da. Horrek ez du lojkarik. Politika hobea behar dugu. Diru asko dago baina ondo gastatu behar da.

G. Zein da Estatuko beste sindikatuen iritzia?

E. Asaja sindikatuko esplotazio handiak bentajan irteten dira, baina Coag eta Union de pequeños agricultores delakoa ados zeuden laguntzen banaketa aldatzarekin, batasun handia egon da alde horretatik. Europar eztabaida zabadauz doa, dirua lau katuk hartzen dutelako eta horrek garapenerako laguntzak moztu egiten dituelako. Laguntzak baserrian lan egiten dutenentzat izateko borrokatu behar dugu. Hemen ere, Europako politika horren eraginez, produkzioa gero eta baserriar gutxiagoren eskutan konzentratzen da, baina guk nahi duguna zera da: lanpostu ugari egon eta baserriak beti egin duen kohesio lana egiten jarraitzea.

G. XXI. mendean zelako nekazaritza izango dugu?

E. Gutxienez daukaguna mantentzea nahiko nuke, orain baino baserriar gutxiago ezin du gure herriak jasan; batetik, produkzioa mantendu behar dugulako; edozein herri despresioa ona edukitzea garrantzitsua da eta gure despresioa nekazaritza da; eta bestetik, egiten dugun aportazioagatik (ingurua babestuz eta kultura bati eutsiz). Borroka horretan gizartearen laguntza beharrezkoa da. **B**

Azken atxiloketak baloratzekoan bat egin dute EAJ, HB eta EAk

Adierazpen instituzionala onartu zuen Udalbatzak astelehenean

Azken atxiloketei buruzko adierazpen instituzionala onartu zuen Udalbatzak astelehenean EAJ, HB eta EAren aldeko botoekin. Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotzia ez zen Plenoan izan.



Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotzia (eskuman) ez zen Plenoan izan. ARTXIBOA

HBk aurkeztutako mozioaren ordez adierazpen instituzionala mahairatu zuen Udalbatzak. Sei puntutan laburbiltzen da testua. Lehenengo puntuan, Euskal Herriak jasaten duen konpondu gabeko gatazkak izatera politikoa duela eta konponketa elkarrizketa politikoaren bidetik iritsiko dela aldarrikatzen dute sinatzaileek. Bigarren puntuan, gatazkaren konponbiderako eta zer-nolako etorkizuna behar duen jakiteko Euskal Herriari hitza ematea ezinbestekoa dela adierazten da. "Behin herritarrei hitza emanik, hauen erabakia alde guztiek errespetatu behar dute, espainiar eta frantziar estatuak barne".

Hirugarrenean, Lizarragaraziko Akordioaren bitartez, gatazka egoera gainditzeko alderdi politiko, sozial eta sindikalen arteko lanki-

detzak elkarbizitarako marko demokratikoaren bidea ireki duela esaten da. Laugarrenean, negoziazio prozesua indarkeria espresio guztiak alde batera utziz garatu dadin apustua egiten dutela. Bosgarrenean, soilik neurri polizialak erabiltzearen aldekoen jarrera salatzen da, "distentsiora hurbildu beharrean, oztupoak besterik ez baitituzte jartzen, muturreko sektoreei eta irtenbide baketsu eta demokratikoa topatzeko asmo gutxien dutenei lagun-

tza eta justifikazioa erraztuaz". Azkenik, Euskal Herria behin betiko demokraziatzeko eszenatokian kokatuko duen prozesuari bidea eman eta sendotzeko konpromisoa berresten dute sinatzaileek.

ALVARO ESPARZA (PSE-EE) EZ ZEN PLENOAN IZAN

Bestalde, Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotziak ez zuen parte hartu Plenoan. Pentsara bidalitako idatzi batean, horren arrazoiak azaltzen ditu Esparzak. PSE-

EEko zinegotziaren esanetan, HBk aurkeztutako mozioak ez du proposatzen bakea lortzeko konponbiderik. "Ezin dezakegu HBk atxiloketei buruz aurkeztutako mozioa onartu, autoak edo Partidu Sozialistaren Herriko Etxeak erretzen direnean HBk jarrera bera erakusten ez duelako".

Bestalde, Euskadin egunero gertatzen diren biolentzia ekintzak salatzeke unea dela dio Esparzak. "Herri hau ez dute HBko edo EHAMEko jarraitzaileek bakarrik osatzen. Gehiago batek (%87k) benetako bakea nahi du eta bakea ez da lortuko mehatxuen eta pintaden bidez edota autoak eta dendak erreaz". Esparzaren iritziz, bakea lortzeko "indar politiko guztiok laga behar dugu zerbait, denon arteko elkarbizitza, plurraltasuna eta errespetua bermatzeko".

Honen haritik, esan dezagun, Alvaro Esparzaren kontra joan zen astean azaldutako pintadak publikoki salatzea eta zinegotziarekiko elkartasuna adieraztea erabaki zuela astelehenean Gobernu Batzordeak. **B**

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Kataide poligonoa, 14 pabilioia, Musakola auzoa. ARRASATE. Tf. 943 79 23 83

Egintza
Konponketa
Alokairua
Balkoia
Terrazak...
Erabilera guztietarako
olanak

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Mainddao auzoko baserri guztietara eroango dira ura eta argindarra.

Angiozarko Mainddao auzora ura eta argindarra eroango da 11 milioi eta erdi pezeta inguru bideratuko dira

Angiozarko Mainddao auzora ura eramán eta argindarra jartzeko proiektua eta baldintza pleguak onartu zituen Udalbatzak aho batez astelehenean. Lanen aurrekontua 11 milioi eta erdi pezeta ingurukoa da eta adjudikazioa lehiaketa bidez egingo da. Lanak egiteko epea hilabete eta erdikoa da.

Mainddao (Elgetara bidean dagoen auzoa) 10 baserri daude baina ia erdie tan ez da inor bizi eguneru.

Horretaz gain, Gipuzkoako Ur-Kontsortzioko saneamendu planaren bigarren berrikuspenari bi alegazio egitea ere onartu zen asteleheneko Plenoan. Alde bate-tik, Osintxuko ur-zikinen garbiketarako obrari lehen-tasuna ematea eta Osintxu-ko ur-zikinak Mekolaldeko hondakin uren araztegi-gira bonbeoaren bidez bidaltzea, Osintxun hondakin uren araztegi autonomoa egin barik. Bestetik, Elgeta-ko ur-zikinak Mekolaldeko

ur-depuradorara ekartzea eskatzea.

Azkenik, Aranzadi Zientzia Elkarteko Geologia Sailak aurten egingo duen 10 piezen dohaintza ere onartu zuen aho batez Udalbatzak astelehenean. Aralarren, Urbasan, Araotzen eta Egillo-
ren aurkitutako fosil txikiak (moluskoak) dira eta 10 aleak Errege Mintegiko Mineralogia eta Paleontogia Saileko bildumarako izango dira. Bilduma osatzen denean 700 bat pieza izango dira.

Trafiko aldaketa Erramu Zapatuan eta kiroldegia eta igerilekuak itxita Aste Santuan

Erramu Zapatuko

feria dela eta Ibargarai eta Irala kaleak moztu egingo dira, bertan gaudua eta postuak jartzeko. Hori dela eta, trafikoa beste kale batzuetatik bideratuko da eta, gainera, ohi baino toki gutxiago izango da aparkatzeko herriaren erdialdean. Bestalde, Udal-tzaingoak jakinarazi nahi du beste urte batzuetan karteristak azaldu izan direla eta, beraz, herritarrei gogorarazi nahi zaie arreta handiz ibiltzeko. Bestalde, Agorrosingo igerilekuak itxita egongo dira eguen eta eguakitz Santuan eta Pazko astelehenean. Bestalde, Labegaraieta-ko kiroldegia ere itxita egongo da eguen eta eguakitz Santuan.

Iñaki Arenazari ongi etorria eguakitzean

Iñaki Arenaza pre-soari ongi etorria egingo zaio gaur, eguakitzan, 19:30etan San Martin plazan. Alcalá eta Navalcarneron hiru urte eta erdi eman ditu.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

Presoak Euskal Herrira lemapean, manifestazioa Erramu Zapatuan

Presoak Euskal Herrira lemapean manifestaziorako deia egin dute Erramu Zapaturako herriko hainbat alderdi politikok eta sindikatuk. Senideek eta Amnistia-
ren Aldeko Batzordeek eskatuta, EAJ, EA, HB, IU-EB, ELA, LAB eta ESK-k bat egin dute eta urtarrilaren 9an presoan alde Bilbon egin zen manifestazioaren izpirituari eutsiz, herri mailan manifestazioa antolatzea erabaki dute. "Presoen kontuan gauzak ez dira aldatu eta Bergaran 12 preso politiko dauzkagula kontuan hartuta, manifestazioa antolatzea erabaki dugu" esan




Hainbat indar politiko, sindikatu eta erakundeetako ordezkariak zapaturako manifestaziorako deia egin dute.

zuen prentsaurrekoan manifestazioaren antolatzaileratariko batek. Manifestazioa isila izango da eta bihar, za-


patua, eguerdiko 12:00etan San Martin plazatik irtengo da. Bukaeran manifestu bat irakurriko dute. Bestalde,

sindikatuak manifestazioarekiko atxekimendua eskatuko diete langileei euren enpresetan.


Aurpegi berri gutxi ekaineko udal hauteskundeetarako alkategaien artean



Victoriano Gallastegi (EAJ-EA)



Jesus Mari Garitano (EH)



Alvaro Esparza (PSE-EE)



Andres Diez (EB-IU)

Udal hauteskundeetarako alderdi politikoko gehienek zerrenda buruak aukeratu dituzte dagoeneko eta aurrekoekiko aldaketa gutxi izango da. Hiru

alkategaiek errepikatuko dute: Victoriano Gallastegi, Alvaro Esparza eta Andres Diez. Bestalde, EHren zerrendaburua Jesus Mari Garitano izango da, Mai-

te Aristegiren ordezkari. EAJ eta EA elkarrekin joango dira seguruen. Zerrendak osatzeko atzo egitekoa zen bileran gauzak aurreratzea espero zuten bi aldeek.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

PILI GISASOLA

Santeri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheak.
☎ 943 76 58 83

Berrigara

361 zenbakia.
1999ko martxoaren 26a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Inaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzea: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripí Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkiak: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

SEI HILABETE ONDORENGO GOGOETA

Jadanik sei hilabete igaro dira oraintsu berretsia izan den ETAREN su-etena eman zenetik. Asko dira bitarte honetan herri honek bizi izan dituen gorabeherak eta, ondorioz, EGIren ustez momentu egokia da geldinetxo bat egin eta zenbait gogoeta plazaratzeko.

Horrela, Lizarrako Akordioa eta kronologikoki ondoren etorri diren ETAREN su-etena ez ziren kasualitatearen ondorio izan, aurretiazko isilpeko lan eraginkor bat egina zegoen. Ordu arte abertzaletasunaren barruan bizkarra emanda egon ziren kultura politikokak, EAJ eta EA batetik eta HB bestetik, bildu eta erabakiak hartzen hasi ziren printzipio orokor baten gainean: politikaren unea iritsi da eta indarkeria adierazpen oro albo batera utziz, bide hertsiki demokratikoen bitartez, herri honen etorkizuna zehazteko garaia heldu da. Muga eta aldi berean aukera bakar baten baitan: azken hitza Euskal Herriak

du eta hitz hau, delakoa dela, eremu guztietan errespetatua izan behar da. Ondorioak Lizarrako Akordioa eta ETAREN su-etena dira.

Jokorako esparru berri honek, ordea, zenbait politikari eta tertuliano jokoz kanpo utzi ditu. Ezin dira egoera berrira egokitu. Hain diskurtso polita zuten montatuta mugiezintasunaren gainean. Gogoratu besterik ez daukagu, ETAREN su-etenen ondoren Mayor Orejak eginiko adierazpenak, "Cuanto menos ETA, más nacionalismo" eta "Las aguas ya volverán a su cauce", edo Rodriguez Ibarrek esan berri duen "Lo que ETA no consiguió lo van a conseguir los nacionalistas".

Baina ez da nobedadea, guda zibilaren atarian, norbaitek "Más vale una España roja que rota" esan zuen eta transizioak-transizio ikusten denez, honek jarraitzen du izaten Aznar eta Borrellen oheburuko "biblia".

Aukera guztiak dira legitimo eta egikarigarri. Euskal gizartearen ongizate maila hobetuz, bere sentsibilitate desberdinak integartzeko gai den egitasmoak lortuko du Euskal Herriaren baiezkoa. Abertzale bezala hau da benetako erronka. Bitartean, aukera hau izan dezagun, gure lan nagusia ETAREN su-etena behin-betikoa egitea da. Bide onetik goaz.

Begarako Euzko Gaztedi (EGI)

ASTE SANTUAN JAI

Datorren astean ez da BERRIGARARIK izango. Aste Santuko oporrak direla eta, ez da errebistarik banatuko. Edozein modutan ere, hurrengo eguakitzean, apirilak 9, zuen etxeetan jasokoduzue BERRIGARA, betiko moduan. Bitartean, ondo pasatu jai egunak.

Berrigara

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Oscar sariak direla eta, kaso egiten jetzu holako sariei pelikulak ikustera joateko orduan?




Iñigo San Migel

Ez, ez dittut Oscarrak jarraitzen, ez jat interesatzen. Zinera? Oirain umiarekin zailla daukat zinera joateko. Oscarrak montaje hutsa direla pentsatzen jat.



Maite Romaratezabala

Ez dot Oscarra irabazten daberen pelikula beti ikusten, baiña entzunagoa danez, garrantzi gehixago emoten dotsat. Saiatzen naiz ikusten, iritzi propioa izateko.



Vicente Montiel

Hiru urte daramatzat zinera joateke, denborarik ez daukadalako. Lehen gehiago jarraitzen nituen Oscarrak eta garrantzi dexente ematen nien.



Begoña Valle

Oscarrak nahiko folklorikoak dira nire ustez. Egunkarietako kritikak Oscar sariak baino gehiago hartzen ditut kontuan.



Gregorio Angulo

Bai, zinera dezente joaten naiz eta filme ona bada, ikustera joatea gustatzen zait. Aurtengoetatik, *El abuelo* bakarrik daukat ikusita.



Izaskun Arizmendiarieta

Egia esan, zinera gutxi joaten naiz eta Oscarrak be ez dittut bat be jarraitzen. Ez dittut kontuan hartzen pelikulak ikustera joateko orduan.



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03-97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

SANTALDE BASERRIA ETA AUTOPISTA

Pilar Altunak deitu digu aste honetan BERRIGARARA. Pilar, Santalde baserrikoa da eta, Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan Udalbatzak onartutako alegazioak direla eta, kontu bat argitzeko asmoz deitu digu. Autopista egiteko egingo diren desjabetzen barruan hartu beharreko hondasun eta eskubideen gaineko alegazioen artean, Santalde baserriari 15.000 metro karratu kenduko zaizkiola esaten da Udalbatzak onartutako mozioan eta Pilarrek adierazi nahi du horri ez dela zuena, 30.752 metro karratu kenduko baitizkiote. Baserri ingurua ia lur barik eta oso egoera txarrean geratuko dela salatu nahi du Pilarrek.

■ ikuspuntua: **roberto izagirre**

Hamaika konplexurekin korrika

Lerro hauek argia ikusi orduko Korrika joana izango zaigu gure artetik. Kilometro bakarren bat egin, kamiseta eta aurten es-traineko gantzontziluak erosi eta hurrengo hirtzordura arte (Herri Urrats) bete dugu euskararekiko konpromisoa.

Bitartean gure konplexuekin jarraituko dugu. Lagun artean, gaizki ulertutako errespetuak, hizkuntza aldatzera eramango gaitu erdalduen bakar bat elkartzan zaigunean edo gorbatadun batengana zuzentzean -are



hizkuntza aldarrikatzeko zeharkaldiek. Baina ondokoei jai erraldoi mordoia laga beharrean, hizkuntza bizi bat lagatzea bada asmoa, aldatu beharko dugu jarrera gehienok. Ez da nahikoa izango AEK edo Kontseilua edo ez dakit zenbat elkarte, ez. Zuk eta nik eman beharko diogu bultzada hizkuntza honi, eta horretarako erdaldunei ere errespetoa eska-

gehiago zerbait eskatzera bada-, eta erdara peto-petoz bukatu dugu berbaldia. Horrela jokatzu gero, hemendik ehun urtera ere jarraitu beharko dute

tu, eta euskaraz bizitzea izango da lehenengo lana. Zer pentsatuko ote dute umeek, gurasoak euren artean erdaraz eta eurekin aise euskaraz dihardutela ikustean? Zela saiatuko da ikasten dendaria euskaldunok ere hasieratik erdaraz egiten badiogu? Eta administrazioko funtzionarioak...

Gure esku dago, eta garbi izan beharko dugu Goierrikoa edo Tolosakoa, ez direla norberarena baino hobeak, eta euskaraz egiteko ez dela titulurik behar, bakoitzak daki mailan jardutea nahikoa dela -erdaraz egiten dugun bezalaxe-; konplexuak baztertu eta pazientzia piskat hartuz gero, gure hizkera asko aberasten baita. **B**

■ asteko menua: **zumelaga jatetxea**

Bildotsa arrozarekin



ADRIAN ARRESEIGOR
Zumelaga Jatetxekoa

OSAGAIAK

- Kilo eta erdi bildots
- 250 gramo arroz
- Bi koilarakada olio
- Kipula handi bat
- Baso erdi ardo zuria
- 2 berakatz ale
- Piperbeltz apur bat

PRESTAKETA

- Kipula ondo txikitu eta gorritu arte sutan potxatzen eduki.
- Bildotsa arrozarekin eta berakatzarekin suetzitu.
- Ondo gorrituta dagoenean, ardo zuria eta litro erdi ur edo salda gehitu, eta ordubetez egiten eduki.
- Piperbeltz apur bat gehitu eta ondo egin arte ontzia estali barik egosten laga.
- Eta prest mahaira ateratzeko!

■ adituen esanetan

Loditasunaren kontrako pilula

ISABEL BENITO, *medikua*

Dagoeneko astebete darama kalean Xenical delakoak, loditasunaren kontrako pilulak. Egia da obesitate arazo larriak dituztenentzat lagungarria gerta daitekeela, baina jendeak ez du pentsatu behar pilula hau majikoa denik. Pilula honek hartutako koipearen herenaren absortzioa eragozten du eta, esan bezala, dietan egon eta pisua galtzea kostatzen zaien lodientzat ondo etor daiteke. Dena den, komenigarria da dietarekin eta ariketa fisikoarekin laguntzea (horrela egin ezean liseri-apatuan efektu sekundarioak izateko arriskua dago). Medikamentu hau ezin daiteke edozein modutan hartu (ume-

ek, haurdunek edota bularra ematen ari diren amek, adibidez, ezin dute hartu) eta errezeta beharrezkoa da pastilla hauek erosi ahal izateko. Bestalde, esan behar da nahiko garestia dela (16.055 pezeta 84 pilulako kaja).

Edozein modutan ere, pisua galtzeko, pastilla hau hartu baino, hobe izango da dieta orekatua izan eta ariketa fisikoa egitea. Pisua galtzeko modu bakarra dago, hartu baino energia gehiago galtzea, balantze energetiko negatiboa lortzea alegia. Pisua piskanaka-piskanaka galdu behar da eta horretan bizitza osasuntsuak, dieta egokiak eta ariketak asko lagundu dezakete. **B**

■ bergarako gordailutik

NOR ALKATEAREN AURRETIK

Imanol Sorondo

Aiarditar Tomas jauna, Felipe II.a erregearen haziendako kontadorea zen. Urte batzuk bazitueta eta uztea erabaki zuen, eta azkenak bere ari-maren gauzetan jardutea. Bergaran bizitzea pentsatu zuen. Horretako, bere zerbitzuan zeuzkan baldintza berdinak eman zizkion erregeak: tituloa, soldata eta gainerako guztiak; hori adierazten zuen txartel bat ere idatzi zuen erregeak 1617ko apirilean.

Aste batzuk beranduago hor dator Aiardi jauna Bergarara eta, txartela Udaletxekoei erakutsiz, leku gutietan lehenengo tokia edukitzeko asmoa azaldu du. Solagüendar Pedro alkateak ez du hori onartu.

Urte batzuk geroago, udal ordezkariak eta Aiardik bilera bat egin zuten adostasuna lortu nahian, eta honek zioen ez zela bere asmoa herri-tarrak nahigabetzea eta ez zuela eztabaidan gehiago jarraituko. Irailean herriko hauteskundeak egin ziren eta Gurpidetar Diego atera zen alkate; ordurako bazeuzkan Erregearen beste hiru txartel Aiardi kontadoreak eta, nola ez, eztabaidak jarraitu egin zuen.

Garrantzia handiko gaia zela eta Gipuzkoak bere gain hartu zuen gauza Zarautzeko Batzar Nagusietan. Erregeak, bere aldetik, Bizkaiko erregidorea izendatu zuen konponketarako. Gipuzkoako eta Bergarako ordezkariak Erregeari idatzi bat bidali zioten: Gipuzkoako alkateak beti denen aurretik izan zirela bere mugetako toki eta jarlekuetan; horrela zela ohitura eta horrela jardue-ra; horrelako eta halako, denak bere kontseilukoak (izenak ipintzen dira), alkatearen ondoren zirela beti beren herrietan (izenak berriz ere).

Oraingoan ez zuen gehiago jarraitu Aiardi jaunak bere asmo eta ohoreekin. Dena dela, eztabaida gogorra eta luzea izanik, Udaletxeak 50.035 marabedi ordaindu behar izan zituen. **B**



Denboraldi hasiera

Bergarako Txirrindulari Elkarteko lagunek martxoaren 7an eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari. Ohiturari jarraituz, **Dorletara** egindako lehenengo irteeran, lore-sorta ederra eroan zioten bertako Ama birjinari, errepidean lagundu diezaien. Hogei laguneko taldea

abiatu zen Dorletaraino eta guztiek maila ona erakutsi zuten denboraldiko lehenengo kilometroetan; **70 kilometro** inguruko buelta egin ondoren, Bergarara itzuli ziren. Hemendik aurrera domekero egingo dute irteeraren bat. Esate baterako, domeka honetan, hilak 28, **Ordizia** aldera abiatuko dira 9:15etan San Martin Plazatik. Allez, allez!!



Korrika Bergaran

Asteazken gauean **Korrikaren 11. edizioa** iritsi zen Bergarara. Korrika ordu laurdeneko atzerapenarekin etorri zen eta, ordutegirik a proposena izan ez arren (San Martin plazara 23:45tan heldu zen), jende dexente bildu zen kalean euskararen aldeko maratoiarri ongi-etorria emateko. Lekukoaren atzetik antxintxika egin zutenek sasoi ona erakutsi zuten, izan ere, erritmo bizi samarrean igaro zen aurtengo Korrika gure herritik. Aurretik, 22:15etan, **Akulu-AEK** euskaltegiak antolatutako **txokolatada** izan zen plazan eta bertaratuek, musikaren laguntzarekin, txokolate gozoa dastatzeko aukera izan zuten. Bestalde, arratsaldean ikastetxeetako gaztetxoek Korrika txikiarekin primeran pasatu zuten. Domekan, **Donostian bukatuko den Korrikara joateko autobusa** aterako da autobus geltokitik 10:15etan.

Zapatila berrieekin

Pilotaren mundua asko aldatu da azken aldian. Gogoan ditugu pilotarietok eurek erositako alkandora, galtza eta zapatilekin aritzen zireneko garaiak. Orain, ordea, entrenatzeko zein jokatzeko, kirol marka ezagunek janzten dituzte kirolariak. **Aspe** pilota enpresak **Astore** etxeak janzten ditu eta, horretaz gain, aurrerantzean, **Elkoro**, **Muruamendiaraz**, **Etxaniz** eta **Zezeagak Asics** etxeak emandako zapatilekin jokatu dute. Esan digutenez, ez irristatzeko egokiak ei dira. Eguaztenean, **Lazkano** oinetako dandan argazkia atera genien Asics etxeko ordezkariarekin. Ikus daitekeenez, umea zapatila berrieekin bezala, irrifartsu eta pozpozik azaltzen zaizkigu pilotariok.



Zubieta 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara.
Tf. 943 76 11 21, faxa 943 76 06 75, mobila 989 76 11 21

BICIPRECISIÓN IGARTUA




Txirrindua gustatzen bazaizu, hemen duzu Aste Santurako falta zaizkizun osagarriak eskuratzeko aukera:

- parrilak
- alforjak
- oinetakoak
- txirrindulariendako arropa bereziak
- kaskoak

ETA AZKEN-AZKENA!

Spinner pro txirrindu estatikoa, sasoian jartzeko modurik errazena!

JAUNARTZEETAN oparitzeko aukera zabala, txirrindu bereziak, adin horretarako egindakoak, baina gerorako ere balio dutenak



Hilaren 27an, zapatua,
goizeko 10etatik aurrera, Frontoian,
AURKEZPENA ETA DASTAKETA



Txakolina

•
Sagardoa

•
Nafarroa eta Arabako Errioxako urteko eta ondutako ardoak

Antolatzailea:

*López Ojeda
Hermanos*



VINOS ATXEGA, S.L.

Amillaga 25. 106 posta kutxa
Biltegia: 943 76 27 76 - 943 76 38 52
Partikularra: 943 76 59 18

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 34 zenbakia. 1999ko martxoaren 26a.

Kalitatearen saria eman diote Zabalo Iturgintzari

ADC enpresak K21 saria eman zion martxoaren hasieran

ADC (Asociación para el Desarrollo de la Calidad) enpresak ematen duen K-21 saria eskuratu zuen Zabalo Iturgintzak, martxoaren hasieran. Eraikuntza arloan lanean ari diren enpresak arautzeko asmoarekin sortu zen ADC. Orain dela urte batzuk Iturgik, Gipuzkoako iturginen elkarteak, arlo honetako enpresa txiki edo ertainen lana aintzat hartzeko izendapen bat egon beharko litzatekeela erabaki zuen. Asmo horrekin egin zen Interistal kongresua 1995ean eta hortik atera da K-21 kalitate ziurtagiria.


Jose Angel Zabalok ADC-ekin egindako ikastaroeri esker bere lana eguneratu ahal izan duela aitortu digu. "Lehen ere kontuak garbi

eramaten saiatzen ginen, baina ezjakintasunak aurrera egitea oztopatzen zigun. Orain, ikastaro horretan egin behar izan dudana lan antolaketari esker, gauzak asko erraztu zaizkigu.

Gure lana hobeto ezagutzeko aukera daukagu eta horrek kontrol handiagoa izatera eramaten gaitu".

ETORKIZUNA HOBETU NAHI

1995ean, Iturgi elkarteak Interistal kongresua antolatu zuen, instalazioei buruz zituzten kezak argitzeko asmotan. Kongresu horretara CAPPEP Frantziako elkarte gonbidatu zuten. Elkarte horrek eraikuntza arloko araututako eskola dauka Frantzian. Jose Angelek dioen be-



Hemeretzi urte daramatza Jose Angel Zabalok iturgin lanean.

■ ■ ■
"Arazo handiena heziketan dago.
Jendeak ezin du inon ikasi gure lanbidea"



zala, "arlotan honetako langileok daukagun arazo handiena heziketan dagoen hutsunea da. Jendeak ezin du inon ikasi gure lanbidea eta horrek beti atzeratuta egotera eramaten gaitu. Frantsesen esperientzia ezagutu genuenean Bergarako lanbide-heziketako eskolarekin harremanetan jarri ginen, han ere iturgin eskola eskaintzeko aukerarik egon zitekeen ikusteko. Ideia ona zela aitortu ziguten arren, ez da ezertan gauzatu eta guk eskolarik gabe jarraitzen dugu. Ez daukagu etorkizunik araututako eskolako jendearekin, ez baitago horretarako aukerarik".

KALITATEAREN BIDEAN

Interistal kongresuaren ondoren sortutako K-21 ziurtagiria izan da Jose Angelek azaldu digun bezala "gure sektorearen etorkizuna".

Hori dela eta, Foru Aldundiaren dirulaguntzaz 1997an ikastaroak eratu zituzten eta horiek gauzatzeko, ADC enpresa ere eratu zuen Iturginek. Baina



Zabalo Iturgintzaren denda.

ADC ez zen iturginen arlorako bakarrik sortu, eraikuntza arloko enpresa guztiak batu zituen, igeltseroak, harotzak, elektrikiariak, eta abar.

Zabalo Iturgintzak lortu duen ziurtagiria, beraz, eraikuntzan lan egiten duten bestelako gremioetako enpresari txiki eta ertainek ere lortu dute. ■



"Antzuolan instalazioak zaharrak dira"

K-21en bigarren maila gainditu duzue. Hirugarrenaren bila joango zarete?

Bigarrena erabat ezarri nahi dugu. Hori da aurtengo helburua. Batez ere, lanen balorazio kontrolean jardungo dugu. Gero hirugarrenera helduko gara.

Noiz eratu zenuen enpresa?

1980a arte familiaren enpresa zen. Orduan hasiera-hasieratik hori aldatzea erabaki nuen. Gure sektorean familiako enpresa asko dago, eta horrek etekinak neurtzeko orduan trabak eragiten ditu.

Zenbat lagun ari zarete lanean?

Uste nuen aberastasuna enpresa sendo bat eratze-tik etorriko zela, baina ezin dugu leihatu. Sistemak ez di-gu uzten horrelako kostuetan sartzen. Egun 14 lagun ari gara. Guztiak enpresan izango banitu "lurpean" egongo nintzateke. Lan denak kontratatatu behar izaten ditugu. Etxekoekin herriko lanak egiten ditugu.

Etxe berrien instalazioak zaharrenak baino txarra-goak dira?

Etxe merkeak lege aldetik araututa dauden arren ez daude kontrolatuta. Gutxieneko kalitatea beharko lukete izan. Pezetara joanez gero, akabo.

Herriko enpresentzat ere lan egiten duzue?

Bai, Elay eta Matz-Errekarekin lan egin izan dugu.

Non diharduzue lanean gaur egun?

Zumaian, Bergaran, Zaldibarren (Bizkaian) eta Antzuolan.

Zein egoeratan dago herriko uraren azpiegitura?

Antzuolan instalazioak zaharrak dira eta materialak ere zahartuta gelditu dira. Nire kezka da Urkulutik ura ekartzeko uraren instalazio berria eginda egotea. Bestalde, nire ustez, daukagun sarea enpresa eta zerbitzu publikoetarako erabili beharko genuke, erabiltzaileek ordainduta, eta beste sare bat egin beharko litzateke etxe-ko urarentzat. Uraren gaineko azterlan bat egin beharko litzateke.



**Euskal
sukaldaritza**

**Eguneko
menua**

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

AITZ-GARBI



**taberna
jatetxea**

**Pintxoak eta kazulatuak.
Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

igok eta Txomin

*Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

Pala txapelketa zapatuan hasiko da

Zapatuan bertan hasiko da aurten go pala txapelketa. Bi maila egongo dira eta maila bakoitzeko lau lehenak izango dira finalerdietan eta guztira 30 norgehiagoka jokatu beharko dituzte bikoteek.

Maiatzaren 8an jokatu dira finalerdia, eta finalak, berriz, maiatzaren 22an.

BIKOTEAK

Lehen mailan

- 1.- Tomas Jauregi-Gotzon Iparragirre
- 2.- Andoni Rodriguez-Santi Arin
- 3.- Angel Peñalba-I. Toledo
- 4.- Iker Manso-Ruben Iturbe
- 5.- Bittor Arbulu-Balentin Zabalo

Bigarren mailan

- 6.- Juan Tomas Garitano-I. Arana
- 7.- J. Garitano-J.I. Madariaga
- 8.- P. Errasti-I. Kortabarria
- 9.- Mikel Jauregi-Eneko Lizarralde
- 10.- J.S. Aristi-J.M. Aranburu



Iazko txapelketako partidu bateko une bat.

LEHEN ALDIKO EGUTEGIA Zapatuan, martxoak 27, hasita

	Martxoak 27	Apirilak 10	Apirilak 17	Apirilak 24	Maiatzak 1
10:00	1/3	6/10	3/5	7/8	2/5
10:45	4/5	7/9	1/2	6/9	3/4
11:30	6/8	1/5	8/10	2/3	7/10
12:15	9/10	2/4	6/7	1/4	8/9



Uzarragara igoera

Datorren domekan, martxoak 27, Uzarragako XXIV. igoera jokatu da. Gazte mailako lasterketa goizeko 10:00etan hasiko da. Iaz Sumofic taldeko Ander Agirrek lortu zuen garaipena, 47'33"ko denborarekin. Peña Aiastuik antolatzen duen lasterketa honetan aurten ere ez da herriko txirrindularirik izango. Bai ordea antzuolar batek, Iker Larreak, entrenatzen duen taldea. Sumofic taldean zortzi txirrindulari arituko dira Uzarragan, tartean iazko irabazlea, Ander Agirre.



Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Maria Angeles eta Eva dira Jubilatuen tabernako arduradun berriak.

Jubilatuen taberna berriz ere zabalik

Hiru salda, bi txorixo pintxo, mingainarena bat... honelakoak entzun ahal izango dira berriz ere Jubilatuen tabernan. Izan ere, joan zen asteburuan ireki zuten Jubilatuen taberna Mari Angelesek eta bere alaba Evak. Gu domeka eguerdian egon ginen hantxe eta biek ere nahikoa lan zuten meza osteko saltsan.

Oraindik hasi berriak dira eta somatzen zaie. Uste baino lan gehiago izan zuten joan zen domekan, Evak dioten bezala "zezenak harrapatu gaitu oraingotan, baina hasiera guztietan pasatzen da. Ez genuen uste horrenbeste jende etorriko zenik. Orain badakigu, beraz, hurrengoan prest egongo gara".

Mari Angelesek sukaldean eta Evak tabernan aritzeko asmoa daukate. "Hilabete eman dugu garbitzen eta dena ger-

tatzen" dio Mari Angelesek eta "gogoz hartu dugunez aurrera egingo dugu. Oraindik ikasten ari gara".

Jakin badakite biek ez dela lan makala. Izan ere, tabernak jendea ezagutu beharra dakar eta herriko erretiratuen gustuak asmatzea ere ez zaie erraza izango. Hori dela eta, "pazientzia izan behar da" dio Mari Angelesek.

BEZEROAK

Ama-alabek bestelako bezeroak izatea ere espero dute. Bazkari eta afariak prestatuko omen dituzte, "eguneko menuak eta bestelakoak eskainiko ditugu, baita kazuelatxoak eta antzekoak ere".

Eguerdiko 12:00etatik iluntzeko 20:00etara izango dute irekita jubilatuentzat. Egun bat jai hartzeko aukera ere izango dute biek, baina oraindik ez dute erabaki zein egun izango den.

Ondareak zaharberritzen

Herriko ondarea zaharberritzeko dirulaguntzak eskaini ditu berriz ere Udalak. Historia, arte, etnografia, arkeologia, zientzia, teknika edo kultura arloan duten garrantziagatik herriko kultura ondarea osatzen duten ondasunak zaharberritzeko dirulaguntza hauek jaso ahal izango dira, aurtengo martotik abendura bitartera egindako lanengatik.

Dagoeneko herritar batzuk jaso dituzte dirulaguntzak. Horietako batzuk amaitu dute lana, beste batzuk, ordea, oraindik badute zeregina. Dena dela, urtero agertzen da eskaera berriren bat.

Dirulaguntzak eskatzeko epea datorren hilaren amaieran bukatuko da. Beraz, horrelako lanen bat egin nahi duzuenok, adi!



Errotak ere zaharberritu dira.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak

Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

LEKU-BERRI
MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94



Ezkerreko argazkian Eneko Olasagasti erreizadorea grabazioa zuzentzen. Eskumakoan, Fernando Bernues zuzendarietako batekin gidoia komentatzen.

"Ertzainak" Bergaran

Bergaran grabatutako telesaila apiril bukaeran estreinatuko da

Aste honetan bertan hasi dira "Ertzainak" telesaila grabatzen Bergaran. Tentazioak produktorak Euskal Telebistarako egindako lan honek, hasiera batean, 13 kapitulo izango ditu eta apirilaren bukaeran estrai-natuko da ETB-1ean. Errepartoburuan Jose Ramon Soroz, Joseba Apaolaza, Mireia Gabilondo edota Aitor Mazo aktoreak dira eta Bergarak ere bere protagonismoa izango du. Ekainera bitartean astean hiru egu-nez herriko hainbat tokitan filmatuko dira telesailaren kanpoaldeak.

Astelehenean hasi ziren "Ertzainak" telesaila grabatzen. Hogei bat laguneko taldea etorri zen Bergarara eta lehendabiziko irudiak Loidi-Etxebarri baserrian, Matxiategiko kanposantuan, herriko erlojudenda batean edota Epaitegi aurrean grabatu zituzten astelehen eta martitzenean. Eneko Olasagasti dugu telesaileko erreizadorea eta zuzendari lanak hiru lagu-

nen artean banatuko dituzte: Aitzpea Goenagak eta Fernando Bernuesek bosna kapitulo zuzenduko dituzte eta gainerako hirurak Olasagastik berak. Aitzpea Goenagak esan digunez, "produkzio aldetik ezin da horrelako produkzio bat zuzendaritza bakar batekin egin eta horregatik zuzendaritza banatua aukeratu da. Sarri erabiltzen den lan sistema da. Nahitaezkoa da zenbait

jendek parte hartzea, produkzioa ez delako gelditzen; kapitulo bat montatzen ari den bitartean beste bat prestatu behar da".

Ordubeteko kapituloak izango dira eta apirilaren bukaeran estrai-natuko da Euskal Telebistako lehendabiziko katean, data zehatza oraindik zehaztu ez den arren. Telesail berri honetako errepartoan aktore ezagunak ditugu: Jose

Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza, Mireia Gabilondo bergararra, Aitor Mazo, Jose Kruz Gurrutxaga, Maiken Beitia, Kike Diaz de Rada, Karlos Zabala, Itziar Lazkano, Mikel Martinez edota Isidoro Martinez. Horiez gain, kapitulo bakoitzerako herriko hainbat lagunek *estra* lanak beteko dituzte. Aste honetako grabazioan, esate baterako, Gerardo Mondragon (baserriko morroiaren paperean), Karlos Etxaniz (enterradorea), Andoni Etxeberria (ebanista), Inazio Juaristi (mozkorra) edota Luis Alberdi (perretxiko biltzailearena eginez) izan ditugu kamara aurrean lanean. Ehundik gora lagun izan ziren produktorak otsailean eta martxoan Kultur Etxean egindako kastingean eta hurrengo kapitulueterako oraindik jende gehiago deituko dute.

POLIZIAKOA

Telesaileko arduradunek jenero poliziakoari heldu nahi izan diote oraingon, suspentsea eta akzioa umorearekin tartekatuz. Patxo Telleria da gidoigile taldearen burua eta berarekin batera Teresa Calo, Juan Agirre edota Edorta Jimenez arituko dira kapitulo bakoitzeko gidoiak lantzen. Apirilaren bukaeran ikusi ahal izango den lehendabiziko kapituloan M.C. inzialak dituen gorpua azalduko da mendian eta Mikel (Joseba Apaolaza) eta Samuel (Jose Ramon Soroiz) ertzainek hilketa hori ikerzteari ekingo diote. Samuel ertzain beteranoa da eta Mikel, berriz, Arkauteko akademiatik etorri berria. Lan egiteko orduan biek metodo ezberdinak dituzte eta bien arteko lehia piztuko da. Ofefean entzungo diren bakoitzaren pentsamenduek umore ikutua izango dute. Bestalde, ikertze lanetan ari direla, istorioaren inguruko bestelako korapiloak ere askatu beharko dituzte...

Joseba Apaolaza urretxuarra nahi-koa ezaguna da gure artean telebistan

(Bi eta bat, Jaun ta jabe) edota zinerako (Dias contados, Malena es un nombre de tango) egin dituen lanengatik. Bere ustez, "produkzio propioa eta lan errealistago bat denez, guztiontzat erronka handia da telesail berri hau. Jenero poliziakoa oraindik ez da jorratu gure artean eta alde horretatik apostu nahiko gogorra da". Jose Ramon Soroizen arabera, "errodajea kanpoan egiten denez, zine kutsua izango du telesailak. Zine filmaketarako erabiltzen den lan sistema bera erabiliko dugu eta argi dago kanpoaldeak Bergara bezalako herri batean jasota, produktu erreago eta naturalagoa lortuko dela. Hori da asmoa behintzat. Polizia jeneroa lantzea delikatuia izan daiteke baina ikusle guztiei zuzentzea da gure asmoa. Umore klabea erabilia, gauzak erreztu egingo direlakoan nago".

EKAINERA ARTE BERGARAN


Ekainaren bukaera bitartean astean hiru egunez kamarak, mikroak eta osterantzekoak izango ditugu Bergarako hainbat tokitan. Tentazioak produktorakoek astelehen, martitzen eta eguakitzetan egingo dituzte grabazioak Bergaran eta bestelako irudiak Miramongo estudioetan grabatuko dira. Laister le-



Astelehenean hasi ziren "Ertzainak" telesaila grabatzen Bergaran. Hamahiru kapitulo izango duen telesaila apiril bukaeran estreinatuko da

hen kapitulua prest izango da. Eneko Olasagasti errealdorearen hitzetan, "jeneroko istorio bat egin nahi dugu. Polisi jeneroari umore ikutu bat eman nahi diogu eta beharbada hori izango litzateke desberdintasun nagusia beste polizia seriekin konparatuz gero. Lan honekin orainarte egin ditugun lanekin nolabait eten egiten dugu". Tentazioak produktorak telebistarako egiten duen lehendabiziko lana izango da "Ertzainak". Sortu berria den produktora honen Lourvier's taldearen azken antzez-lana ere ekoiztu du.

Olasagastiren arabera, Bergarako duen kokalekuak berebiziko garrantzia izan du errodajea bertan egitea aukeratzeko orduan; "Bergara lehendabizi ko-



PINTURAS BERGARA S.L.


- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.



Asteburuetan bertako babak eta sabieskia


SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73



Goiko argazkian Mikel Martinez eta Jose Ramon Soroiz aktoreak Fernando Bernues lehen kapituloko zuzendariarekin, Epaitegi aurrean martitzenean.

kagunea da. Lehen komedia garbia egiten genuen eta oraingo honetan istorio errealistago batera jo nahi izan dugu eta orduan horren atzetik, eta kontuan hartuz euskaraz dela, nahi genuen euskaraz sinesgarriagoa izatea eta horregatik aukeratu dugu Bergara, euskararen muga delako, Bizkaia eta Gipuzkoa ar-

tean dago eta sinesgarritasun gehiago lortu nahian hemen filmatzea erabaki genuen. Gainera, bizkaieraz hitz egiten denez, aktore gipuzkoarrak eta bizkaitarrak aprobetxatzeko aukera daukagu". Gure herriak izango duen protagonismoaren inguruan zera adierazi digu Olasagastik; "herri polita da eta kanpo-



Eskerrean, Joseba Apaolaza eta Jose Ramon Soroiz, "Ertzainak" telesailko protagonista nagusiak. Alboan, Maiken Beitia aktorea, Mikelen (Joseba Apaolaza) neskalagunaren papera egiten duena.


Goiko argazkietan, berriz, herriko *estra* batzuk: Andoni Etxeberria (ebanista), Gerardo Mondragon (morroia) eta Karlos Etxaniz (enterradorea). Gidoiak aginduta, Gerardo Mondragonek bizarra laga behar izan du.

Telesaileko arduradunek jenero polizikoari heldu nahi izan diote oraingoan, suspentsea eta akzioa umorearekin tartekatuz

an egingo ditugun sekuentzia guztiak benetako dekoratuak izateko aukera daukagu. Horrek ere aldaketa bat suposatzen du ETBn egin diren serietan".

ERTZAINAK PROTAGONISTA

Orain arte euskal zinean edota beste telesail batzuetan ertzainak ikusteko aukera izan badugu ere, oraingo honetan protagonismo guztia beraiek izango dute. Eneko Olasagastiren iritziz egun bizi dugun egoerak lagundu egin du pauso hori eman ahal izateko; "orain dela urtebete ezingo zen horrelako serie bat egin. Gu herri honetako partaide garen neurrian erantzun bat eman dugu herri honek bizi duen egoera soziopolitikoari begiratzuz eta orain urtebete ez zen posible izango. Orain ere suszeptibilitate asko egongo dira alde batetik zein bestetik baina bueno, herri bat osatu nahi baldin badugu eta normalidadera jo nahi baldin badugu, horrelako gauzak gertatu beharko lirarteke. Gertatzen da nahitaezkoa izango dela jende askok ikustea Ertzaintza, ba, ez polizi gorputz soil bat bezala baizik eta beste zerbait gehiago baina konnotazio horretan guk ez dugu sartu nahi. Ez diogu errealtateari ihes egin nahi; esate baterako, ez dugu kale borroka saihestuko. Alde horretatik jo nahiko genuke herri normal batean bagina bezala". **B**



**HERRI
BATASUNA**

Hitzaldia

Egoera politikoa

Martitzena, martxoak 30, 19:30etan Artatse elkarte



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

11:30: Shaktale-Mongatxurak	Patatus
12:30: Buya-Patatus	Mongatx.

ZAPATUAN KANPOAN

16:00: Azpeitxi Jatetxea-Ortzi	Komando P.
17:00: Komando Piperrak-Matxakategi	Azpeitxi

DOMEKAN BARRUAN

09:30: SLP-Amilotx	Ari Ari
10:30: Ari Ari-Agirrebeña Jatetxea	Amilotx
16:00: Bar Canalejas-Azpeitxi jatetxea	Errotagain
17:00: Jauja OH Zerezos-Errotagain	Ortzi
18:00: A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi	OH Zerezos
19:00: Moskis-Irubide Jatetxea	Matxakat.
20:00: Patxaran Team-Matxakategi	Irubide

DOMEKAN KANPOAN

16:00: Arbe Kirolak-Tom Cat	Agiñaspi
17:00: Mo(ko)lotov-Agiñaspi	Arbe

argi!

Igandekoak eta Artusamak

Igandekoak eta Artusamak taldeei 3 puntu kendu dizkie Antolaketa Batzordeak partiduak jokatzea ez agertzea-gatik. Beraz, Ion Autoak eta Sirimi Eri taldeen kontrako partiduak 3-0 galdutzat eman dizkie Antolaketa Batzordeak. Bestalde, Kopa txapelketako zozketa apirilaren 6an arratsaldeko 18:00etan egingo da Kultur Etxean. Interesa dutenek bertara agertu daitezke.

jokoz kanpo



JABI ARRONDO
Moskis

G. Nahiko ondo zoazte saikapenean...
E. Bai. Normalean erdi aldean ibili gara, baina azken aldirian partiduetan emaitza onak lortu ditugu.

G. Partiduetara jokalarri guztiak joaten zarete?

E. Azken aldirian bai. Atezainek kale asko egiten dituzte baina ia beste guztiok agertzen gara. Ni neu orkestra dela eta, batzuetan ere ezin izaten naiz agertu.

G. Zure taldeko jokalarri bat?

E. Iñaki Gabilondo.

G. Txapelketa zela amaitzea espero duzu?

E. Lehen postuan, jakina!

G. Zein postutan jokatzen duzu?

E. Ez daukagu toki finkorik, baina normalean aurrean.

G. Zer kenduko zenuke txapelketatik?

E. Askok egingo luketen bezala, arauak. Gehiegi dira.

G. Txapelketako talderik aipagarriena?

E. Moskis, ja ja ja.

G. Eta, Moskis, zergaitik?

E. Hommer Simpsonen tabernan garagardoa edaten duen bakoitzean "moskis" esaten duelako. Kamisetaren bizkarrean daramagu Simpsonen irudia garagardoa edaten.

gora eta behera



Ion Autoak eta Pinturas Bergara

Ion Autoak saikapenean nabarmen igo da azken jardunaldiko emaitzei esker. Zazpigarren postutik, 2.era iritsi da. Amozkibarrek, bestalde, orain arteko gol kopururik handiena egitea lortu zuen: Pinturas Bergarari 23 gol. Halere, kontuan izan behar da Pinturas Bergara jokalarri bat gutxiago aritu zela.



Pagomendi

Orain arte goi postuetan ibili den arren, azken jardunaldian ezin izan zion zortzigarren postuan dagoen Bildurbarek taldeari irabazi. Dena dela, partidua galtzek ez du Pagomendi taldearen saikapenean eraginik izan.

emaitzak

Txipiron-Artusamak	4-7
Amozkibar-Pinturas Bergara	23-7
Igandekoak-Ion Autoak	0-3
Tom Cat Argandolas-Uve Bikoitza	4-2
Etengabe-HHH	4-5
Bildurbarek Opel/Lam-Pagomendi	3-1
Xurruapak-Usoa	7-6
FAC-Bayer	5-3
Ion Autoak-Buya	7-2
Ufala-Urrutxurto	4-4
Txipiron-Ezinleike	6-3
Sirimiri Eri-Artusamak	3-0
Buya-Agiñaspi	2-11
A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain	4-3

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	34	16
2. A Ze Flaxa Etxagi	33	17
3. Errotagain	29	17
4. Pagomendi	27	18
5. Ortzi	23	15
6. Bar Canalejas	23	17
7. Mongatxurak	18	16
8. Bildurbarek Opel/Lam	18	18
9. Jauja OH Zerezos	13	17
10. Shaktale	13	17

2. maila

	P	J
1. FAC	25	11
2. Bayer	22	10
3. Xurruapak	20	11
4. Artusamak	18	11
5. Tom Cat Argandolas	17	11
6. Arbe Kirolak	15	10
7. Sirimiri Eri	14	10
8. Ezinleike	13	11
9. Txipiron	8	11
10. Guadalest	7	10
11. Usoa	7	11
12. Uve Bikoitza	4	9

3. maila

	P	J
1. Urrutxurto	24	10
2. Moskis	19	9
3. Ufala	17	9
4. Irubide Jatetxea	16	9
5. Ari Ari	16	9
6. Jakina Patxaran Team	16	9
7. Agirrebeña Jatetxea	8	9
8. Komando Piperrak	8	9
9. Etengabe	6	10
10. HHH	6	10
11. Matxakategi	5	8

4. maila

	P	J
1. Amozkibar	23	10
2. Ion Autoak	17	11
3. Agiñaspi	16	9
4. Mo(ko)lotov	15	9
5. SLP	15	9
6. Patatus	12	9
7. Buya	12	8
8. La Juve	11	10
9. Amilotx	6	9
10. Pinturas Bergara	5	10
11. Igandekoak	4	10

kronikak


**Futbola
Preferentea
ondo baino
hobeto**

Preferente mailako taldeak 0-3 irabazi zuen joan zen igandean azkoitiarren kontra. Nietoren mutilek, hasieratik izan zuten kontrolpean partidua nahiz eta hiru golak bigarren zatian egin.

Partiduko golegileak, Errasti eibartarra bi golez eta Josetxo izan ziren. Emaitza honen ondorioz, bergararrak bigarren daude sailkapenean liderretik puntu bakarrera. Gauzak horrela, hirugarren maila gero eta hurbilago dago. Une honetan taldea oso sendo dago eta hurrengo partidurako lesionatuta zeuden jokalariek guztiak daude errekuperatuta. Bergararen hurrengo partidua Roteta taldearen kontra izango da.


**Eskubaloia
Denboraldia
3. amaitzeko
asmoz**

Joan zen asteburuan, eskubaloia saileko maila guztiek atsedena izan zuen. Jardunaldi honetan, Josetxoren mutilek Pasai Donibarenen kontra jokatuko dute.

Pasaitarrak laugarren postuan daude eta aurreko itzulian Josetxorenak partiduan garaile irten baziren ere, entrenatzaileak ez du uste partidua erreza izango denik. Kontuan hartu heharrakoa da, hiru jokalariek lesionatuta dabilzala. Bergararre bi partidua besterik ez zaie falta liga amaitzeko. Partiduak irabaziz gero, hirugarren postuari eutsi eta eskubaloia denboraldiari amaiera emango liokete, ondoren jokatuko den kopan aritzeko asmorik ez baitute.


**Saskibaloia
Bolsos
Bergararen
garaipena**

Bergara saskibaloia saileko talde nagusiak, 63-68 irabazi zuen Bilboko, País Vasco Siglo XXI taldearen kontra. Bergarako taldea hasiera-hasieratik nagusitu zen eta partidua osoan zehar joan zen aurretik. Entrenatzaileak dioenez, aurreko partiduetan erakutsitako jokoak hobetu egin da. Lehen zatian, esaterako, lau hiruko saskiratze egin zituzten zazpi aukeratik. Ez da marka txarra.

Begararrak sailkapenean bederatzigarren postuan daude. Hurrengo partidua Arrasateren kontrako derbia da. Azken hau irabaziz gero, eta arrasatearrei zortzi puntuko alde ateraz gero, aurretik jartzeko aukera izango dute.

MARKEL LARRAÑAGA/ Karateka
"Lau urterekin hasi nintzen karatean"

Jokatu berri den Soraluzeako karate txapelketan lehendabiziko postua lortu zuen Markelek. Bergaran ere lehen postua eskuratu zuen eta domekan Azkoitian berdintsu jarraitzea espero du. Lau urte zituela hasi zen karatean lagunen eraginez eta orain, alebin mailan ari da. Hamabi urte ditu eta futbola baino nahiago du, borroka eta katak egitea.

G. Lehen sailkatzea erreza izan zen?

E. Eibar, Soraluze, Bergara eta inguruko jendea aritu ginen txapelketan. Nere bigarren urtea da alebinetan eta horrek lagundu egin zidala uste dut,

beste asko gaztetxoagoak ziren eta.

G. Zein gerriko daukazu orain?

E. Marroia. Ondoren beltza dator, baina beltza lortzeko nagusiagoa izan behar naiz. Gainera, beltzaren ostean hainbat dan datoz eta hori lortzea ez da batere erreza.

G. Gazte-gazte hasi zinen karatean...

E. Lagunen eraginez izan zen. Dena dela neu naiz karatea egiten jarraitu duen bakarra. Batzuetan gogorra da lagunekin jolasteari laga eta entrenatzera joan beharra, baina...

G. Zer atsegin duzu gehiago katak edo borroka egitea?


E. Katak egitea atsegin dut, baina borroka ere bai.

G. Karateak modalitate asko ditu. Ezagutzen dituzu?

E. Ni neu gustora nabil aukeratuakoaekin. Shotokanean hankak dira erabiltzen direnak eta gustoko dut.

G. Karateka gustokorik baduzu?

E. Bai, Jose Manuel Egea munduko txapelduna.


KARTELDEGIA
FUTBOLA
Bergara-Beti Ona

Bigarren mailako kadetea
Zapatua. 11:00. Ipintza

Bergara-Roteta

Preferente maila
Zapatua. 16:45. Agorrosin

Bergara-Eibartarrak B

Bigarren mailako jubenilak
Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA
Bergara-Leizaran (Andoain)

Kadete mailako mutilak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Urribide

Jubenil mailako neskek
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

Bergara-Donibane

Jubenil mailako mutilak
Domeka. 12:15. Kiroldegia

SASKIBALOIA
Bolsos Bergara-Arrasate

Senior maila
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

PILOTA

EUSKAL HERRIKO
ELKARTEEN ARTEKO
TXAPELKETA

Finalak

Eguakitza. 19:30.

Udal Pilotalekua:

GAZTEAK

- **Amarika IV eta Bengoetxea-Mendizabal eta Gurrutxaga**

NAGUSIAK

- **Ubera eta Iñurrategi-Ketxu eta Fuertes**

NESKEN FUTBITO
TXAPELKETA

Potzu ta zapaburuak-Tetxi

Domeka. 17:00

Ipintza DBH ikastetxea

Unamuno txirrindulariak peña izango du Bergaran

Taldearen izena "Aurrera Unamuno" izango da

Badira hiru urte, Unamuno bergarra afizionatu mailan ari dela. Iaz egin zuen bezala, duela aste-bete korritu zen Gorko Igoeran, Bergarako lehenengoaren saria eskuratu zuen. Azken honetan eta beste hainbat lasterketan erakutsitako maila dela eta, herriko gazte talde batek Unamunori jarraitzeko eta babesteko asmoz, "Aurrera Unamuno taldea" sortzea pentsatu du aurtengo denboraldirako.



"Aurrera Unamuno Taldeko" partaideak, Unamuno bera eta Gorko Igoeran irazlea izan zen Garate txirrindularia.

Txirrindulari lagunartek ez dira futbolekoak bezain ezagunak. Are eta guxtiago afizionatu mailara bideratuta baldin badaude. Xabier Uribealgo eta Aritz Ugarteek adierazi digutenez "duela pare bat urte hasi ginen Unamunok korritzen zituen lasterketetara hurbiltzen eta lagunartea sortzeko ideia eztabaidatzen. Hasieran, inguruko lasterketetara besterik ez ginen joaten baina kotxea izan genuen bezain laister ia guztietara hurbiltzen gara. Lagunak izatek aparte, txirrindulari ona da eta denboraldi bikainak egiten dihardu. Unamunorentzat, aurtengo denboraldia klabea dela esan daiteke eta horregatik babes handia izan behar du".

HELBURU NAGUSIAK

Afizionatu maila izaten da txirrindulari baten ibilbidea erabakitzen duena. Afizio-

natuetako azken urteetan maila ona erakusten badute, profesionaletan izateko ateak zabaldu daitezke. "Egia esan, afizionatuen mailan ez dago apenas lagunarterik baina orain da, gure ustez, benetako animoak eta la-

**Unamunoren
ibilbidea
jarraitzeko eta
bestelako
irteerak
antolatzeko
asmoa du
lagunartek**

guntza emateko ordua". Bergarako gazte talde honen asmo nagusia Unamunori jarraitzea bada ere, helburuak ez dira horretara mugatzen.

Momentuz, 19 lagun inguru dira "Aurrera Unamuno Taldea" osatzen dutenak. "Hasiara batean federazioarekin hitz egin eta taldearen ofizialtasuna lortu behar dugu. Gero, ahalik eta talde handiena lortzeko asmoa dago. Bergaran asko dira txirrindularitza gustoko dutenak eta hauek ere taldeko partaide izatea espero dugu. Zenbat eta jende kopuru handiagoa izan, orduan eta arazo gutxiago dago gauzak antolatzeko eta

lan egiteko. Interesa dutenek, 943 76 10 25 telefonora deitu dezakete".

Aurrera Unamuno taldeak, Tourrera eta beste hainbat itzulari irteerak antolatzeko asmoa du. Jende asko izaten da Tourrera joaten dena eta askok, gogoia edukirik arren, ez dute bertara gerturatzeko biderik izaten. "Gauzak pentsatuta ditugun bezala irreten badira, irteerrez gain, herrian bertan ere hainbat ekintza antolatzeko asmoa dugu. Badakigu Unamunok pozik hartuko duela hau guztia eta lasterketetan gure animoak erantzundakoan tropelaren aurretik egoteko ahalegin handienak egingo dituela".

Aldai eta Tomas txapelkun Uberan

Aldai eta Tomas biko-
tea izan da Uberako txapel-
ketan irabazle, Larrañaga
eta Gallastegi 22-15 irabazi
ondoren. Asteartetan jokat-
zen beteranoen pilota
txapelketak bi hilabete in-
guru iraun du eta bertan
zazpi bikotek jardun dute
elkarren kontra. Finala jokat-
tu ondoren, afari goxoa izan
zuten bertan bildutakoek



Finalistak, partiduko epaileekin batera, finala jokatu aurretik

Uzarragako igoera domekan

Domekan jokatuko
da Aiausti Txirrindulari
Elkartek antolatutako
jubentzen Uzarragako
Igoera. Antzuolako irte-
eran bilduko diren txi-
rrindulariek goizeko
10:00etan emango diote
70 kilometroko ibilbide-
ari hasiera. Gogoratu, jo-
an zen urteko igoera An-
der Agirre bergararrak
irabazi zuela.



Garate Gorlan irabazle

Iaz bezala, Juan Manuel Garate irundarrak irabazi zuen Gorlako Igoera. Hala ere, ez zuen iaz berorrek jarritako errekorra gainditzetik izan, aurten goa 21 minutu eta 12 segunduko denbora egin du eta. Xabier Lazpiurrek, Angiozarren jai eta Aretxabaletan bizi denak, lehendabiziko hamar txirrindularien artean izatea lortu zuen, 9. postuan hain zuzen 21'21"ko denborarekin. Unamuno bergararrak, bestalde, 21'49"ko denbora egin zuen eta 15. postuan gelditu zen.

Delarriberrite Espainiako txapelkun Gigante eta Slalomean

Aitor Delarriberrite txapelkun izan zen Kataluniako Boi Taull estazioan jokatu zen junior mailako Slalom eta Gigante txapelketetan. Sailkapen orokorrari dagokionez, Gigantean bosgarren eta Salalomean zazpigarren gelditu zen.

Bestalde, duela hiru aste, Baqueiran Kataluniako unibertsitateen arteko txapelketan ere txapelkun izan zen Gigantean eta bigarren Slalomean.

Jubenil mailako futbol txapelketa

Realak jubentzen futbol txapelketa antolatu du Aste Santuan. Bergaran jardungo dutenak Bartzelona eta Athleticeko gazteak izango dira. Partidua apirilaren 4an jokatuko da, Agorrosingo futbolzelaian, arratsaldeko 16:00etan.

ESKOLA KIROLA

Karteldegia

FUTBOLA

BENJAMIN MAILA

10:15: San Martin B-Antzuola A

10:15: M. Lagundia B-Antzuola B

Zapatuan, Ipintzan

11:00: M. Lagundia A-

M. Lagundia D

11:00: Aranzadi 6-San Martin A

11:45: Aranzadi 1-Aranzadi 2

11:45: Aranzadi 5-M. Lagundia E

12:30: Aranzadi 3-Aranzadi 4

Zapatuan, Ipintzan DBH ikastetxean

INFANTIL MAILA

09:00: M. Lagundia-Kurtzeberri

Zapatuan, Ipintzan

12:00: S.Fko. Xabier-Aranzadi

Zapatuan, Musakolan (Arrasate)

Autobusa, 11:00etan Beheko


Estazioan.

ARETO FUTBOLA

KADETE MAILA

10:00: Mogel D-M. Lagundia

Zapatua, La Sallen (Eibar)



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

B O L U

F I T N E S

MARTXOAREN 29 AN ZABALIK!

Argibideak **943 76 72 91** telefonoan (10:00-12:00 eta 16:00-20:00)

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Fraiskozurin pisua salgai. 943 76 15 40.

Masterrekan pisua salgai. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Osintxu. 943 76 49 74.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Laredo-plaian, Aste Santuan. Piszinarekin. Deitu 943 76 13 86 telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

Pisua hartuko genuke alokairuan. 943 76 26 82 /943 76 57 34.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. Deitu 943 76 71 93 telefonora.

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Iburgarain. 943 15 15 81.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Aranerreka. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Iburgarai. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Iburgarai. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lau gelako lokala Koldo

Eleizalden, bulegotarako. 943 76 58 91.

Lokala S. Pedro kalean. Deitu 943 76 10 39 telefonora.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauetz).

4. LANA

ESKAINZAK

Erizain titulatuak gaixotzak, edadetuak edo haurrek zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Emakumeak etxeko lanak edo nagusiak zaindu. 943 76 46 48.

Etxeko lanak edo haurrek zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrek zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak, goizez, haurrek zaindu edo etxeko lanak. 943 76 42 63.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrek zaindu edo dendan lan egingo luke. 943 76 53 71 (Maite).

ESKAERAK

Senar-emazte edadetuak zaintzeko pertsona behar da. 629 26 39 45

Uztailean eta abuztuan neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 22 39 (Miren).


Goizez etxeko lanetarako emakumea behar da.

Kizkur
Ilkapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

USOA MENDIKUTE



pintura-erakusketa
NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Tabernan lan egiteko
ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIA
behar da
Tf. 617 20 66 29

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOLDOAK



Larranaga
San Pedro, 9 - Telefono. 761051
R.S.I. 209374-55
BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Autoduna. 943 76 27 04
(13:00etatik aurrera).

Goizez etxeko lanak
egin eta bi ume zaintze-
ko emakumea behar da.
943 76 44 08.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles filologian lizen-
tziatuak klaseak ematen
ditu. 943 76 30 28
(Ana).

OHO eta BBB klaseak.
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak.
943 76 26 27 (Ainhoa).

Majisteritzan diploma-
tuak klaseak ematen
ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Ingenieritzan diploma-
tuak OHO eta BBBko
klaseak. 943 76 70 44.

Majisteritzako ikasleak
OHOKo klaseak ematen
ditu. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Yamaha 250 cc. moto-

rra, beltza eta kroma-
tua. 943 76 28 92.

Citroen BX egoera one-
an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera
onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Ai-
re egokitua. Kilometro
gutxiarekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra sal-
gai. 250 cc. 9 urte.
943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea
(SS-W) prezio onean
salgai. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB)
egoera onean salgai.
943 79 68 75.

Honda NSR 80 motorra
salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra
salgai. 943 76 07 28.

Ford Fiesta (BI-AM) ko-
txea prezio onean sal-
gai. 943 76 31 34.

Ford Sierra 2.3 diesel
egoera onean salgai.
617 20 66 29.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ardi txakurkumeak

(arrak eta emeak).
943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak
salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak
salgai. 943 76 43 70.

BESTELAKOAK

Bi artzai txakurkume
opari. 943 76 35 58.

Artzai txakurkumea
(emea) oparitzen da.
943 76 12 93.

8. DENETARIK

SALDU

Opera eta kamara musi-
ka CD bildumak salgai.
943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak sal-
gai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berri-
berriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumulado-
rea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta
(8-12 urtekoentzat).
943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai.
943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje

(marineroa eta neskat-
larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea sal-
gai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera one-
an salgai. 943 76 13 53.

Espasa Calpe hiztegi-
entziklopedikoa.
27 tomoko bilduma.
943 77 05 95 (Jacinto).

Kalentadore termo berri
bat saldu nahi nuke.
943 76 30 83 (Juli).

Ohe artikulatua. 90
zm.koa. 943 76 20 90.

Movistar telefono mu-
gikorra. 943 76 38 77.

EROSI

Singleak eta LPak eros-
ten ditut. 943 52 65 77.

GALDU

Giltza batzuk galdu dira,
Festinako kiltzakoare-
kin. 943 76 00 56.

BESTELAKOAK

Egunero, 14:30etan, Zu-
marragara kotxez joa-
ten den norbaiten berri
izan nahi nuke.
943 76 17 62 (Miren).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PROGRAMATZAILEA
Gasteiz. 17329/2

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 17900/2

HARGINA
Deba Behea. 17518/3

KOMERTZIALA
Ibaizabal. 17952/0

**HIRU HIZKUNTZAKO
IDAZKARIA**
Deba Garaia. 17521/1

**TABERNARI
LAGUNTZAILEAK**
Plentzia-Mungia.
18007/1

KOMERTZIALAK, 2
Ibai ezkeraldea.
17698/3

**ELEKTRIZITATE
LAGUNTZAILEA**
Deba Garaia. 15495/3

OPTIKOA
Bilbo. 17712/5

ELEKTRONIKOA
Plentzia-Mungia.
16690/3

TORNULARIA
Durangaldea. 17762/5

KOMERTZIALAK
Goierri. 17512/1
Ibai eskuinaldea.
17694/1
Laudio. 17699/2

ESTANPATZAILEA
Ermua. 17764/4

**INDUSTRI
ANTOLAKUNTZARAKO
INJINERIA**
Urola kosta. 17883/2

TABERNARIA
Bilbo. 16364/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat
interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

SANTOS

IRRATI-TB


TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41



MAPFRE

LAN ESKAITZA

• Komertziala Bergararako
Egun osoko edo
egun zatiko jarduna

Interesatuok

laga zuen
Curriculum Vitaea
Simon Arrieta 3ko
bulegoan
10 egun baino lehen

Baldintzak

- Erdi mailako ikasketak
- Sen komertziala
- Dinamikotasuna

Aritzeta abesbatzaren emanaldia zapatuan Mariaren Lagundiaren bigarren mendeurrenean

Pazko martitzenean 200 urte betetzen dira lehen monjak Bergarara etorri zirela

Aritzeta abesbatzak kontzertua emango du zapatuan Mariaren Lagundiko elizan arratsaldeko 7etan. Ikastetxearen bigarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu da emanaldia. Bestalde, Pazko martitzenean, apirilaren 6an, 200 urte betetzen dira Mariaren Lagundiko monjak Bergarara etorri zirela.

Mariaren Lagundia bezala, Aritzeta abesbatza ere urteurrena ospatzen ari da aurten, izan ere, 20 urte betetzen dira abesbatza sortu zela. Hori dela eta, hainbat emanaldi antolatu dituzte urtean zehar, tartean, bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan eskainiko dutena.

Egitarau anitza aukeratu dute egun horretarako Aritzetakoei. Imanol Urzeilairen zuzendaritzapean, honako pieza hauek eskainiko dituzte: Gauza bat deklaratzen (E. Cosetto), Ave Maria (J. Busto), Lerushalaim (J. Iturria), Jacinto Chiclana (L. Cangiano), Gaur akelarre Gorbeian (L. Aranburu), Barcarola (B. Corona), Atxia-Motxia (T. Garbizu), Deep River (Ringwald), Axuri beltza (J. Busto), Meu Coração (J. de Barros) eta Soon ah will be done (W.L. Dawson). Horretaz gain, astebukaera honetarako beste emanaldi bat ere iragarrita dute Aritzetakoei. Domekan Martuteneko espetxean kantatuko dute. Aritzeta abesbatza 40 lagunek osatzen dute gaur egun.

APIRILAREN 6AN 200 URTE

Lehen esan dugun moduan, Mariaren Lagundiko lehenengo lekaimeak Tuteratik Bergarara etorri zirela 200 urte beteko dira Pazko martitzenean, apirilaren 6an. Hori ospatzeko, 18:00etan Bergarako kanpandorreetan kanpai-jotzea izango da eta ordu berean meza Te Deum abestuz ikastolako elizan.

1799ko apirilaren 2an lau monja abiatu ziren Tuterako komentutik Bergararantz. Lau monja horiek eta habitoa Bergaran hartu zuten beste hiru izan zi-



Aritzetak zapatuan arratsaldeko 7etan abestuko du Mariaren Lagundiko elizan.

ARTXIBOA

ren Bergarako Mariaren Lagundiko sortzaileak. Tuterako apezpikuak izendatutako lau lekaimeak lau egun geroago iritsi ziren Bergarara, apirilaren 6an. Heldu zirenean, herriko parrokoa, eliza eta ermitetako kanpai hotsez hartu zituzten. Handik egun batzuetara, hilaren 11n, herritar eta eliztiarren artean San Pedroraino abiatu ziren prozesioan eta bertan Te Deum abestuz meza izan zen. Ondoren, letaniak abesten Soledadeko Amaren Beateriora abiatu ziren eta meza entzun ostean, beaterioan sartu eta klausura itxi zen.

OLIVER! MARIAREN LAGUNDIAN

Esan dezagun, bestalde, Bergarako Orfeoia maiatzaren 8an estreinatuko duen Oliver! anzterki eta musika ikuskizuna, Mariaren Lagundian antzetzuko dela eta ez Udal Pilotalekuan joan zen astean adierazi genuen bezala. Lau emanaldi eskainiko dira: maiatzaren 8an, 9an, 15ean eta 16an.

POTI Y LOS TONTOS

Gaiz aldatuz, esan dezagun, bi emanaldi iragarri direla zapatu gauerako Jam aretoan. Alde batetik, One minute si-

lence britainiarrak eta Hyssopus elorriotarrak izango dira gaueko 10etan. Bestetik, gaueko ordu batean, Poti y los tontos izango dira Go-Jam-en. Potik (bateria), Berasak (kitarra), Txutxik (kitarra), Anderrek (bajoa) eta Mustik (ahotsa) osatzen dute taldea eta betiko rock and roll kantuen bertsioak egiten dituzte. Sarrera doan izango da.

SOZIEDAD ALKOHOLIKAREN BIDEA ETA DUNCAN DHU JAMEN

Bestalde, apirilaren 9an, eguakitzan, Soziedad Alkoholikaren emanaldia iragarri da Jam aretoan. Gasteiztarrek bideoa grabatuko dute zuzenean. Irudi zailenak arratsaldeko 5etan hartuko dituzte eta gainontzekoak gaueko emanaldian. Arratsalderako figuranteak behar dituzte eta nahi duten guztiek izena eman dezakete Etxagin edo Jam-en. Arratsaldeko eta gaueko emanaldirako sarrera doan izango dute.

Esan dezagun, azkenik, apirilaren 10ean Duncan Dhu taldeak Jam-en entsaiatuko duela. Mikel eta Diego beriz ere elkartu egin dira eta aurki hasiko duten bira entsaiatzeko Amillagako aretoa aukeratu dute. **B**

BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Aranzadi ikastolako Hik Galdeu eta Petu Petuan taldeek jokatuko dute finala gaur

Hik Galdeu eta Petu Petuan taldeen artean erabakiko da gaur "Bergara ezagutzen" txapelketa-lehen edizioko irabazlea. Herriko ikastetxeetako 9 talde aritu dira lehian eta Aranzadiko DBH 4ko bi talde heldu dira finalera.

Joan zen eguenean jokatu zen bigarren finalerdian, azken unean erabaki zen finalerako sailkatutako taldearen izena. Petu Petuan eta Errastisklas-en arteko neurketa oso parekatua gertatu zen eta lehenengo puntu bakarreko aldearekin nagusitu zen; azkenean, 234 puntu lortu zituen.

Galderetan lortutako aldeari esker lortu zuen Petu Petuan taldeak finalerako txartela. Proba honetan 189 puntu lortu zituen eta Errastisklas-ek, berriz, 168. Azken hau, euskarazko galderetan malka samar ibili zen. Petu Petuan-ek, ostera, zuzen erantzun zituen galdera guztiak. Proba grafikoa, Errastisklas-ek 45 puntu lortu zituen eta Petu Petuan-ek 25. Azkenik, kanpoko jokoa bi taldeek asmatu zuten eta hogeina puntu lor-

tu zituzten. Bestalde, ikusleen artean egiten den zozketan Unai Bilbaori egokitu zitzaion kamiseta.

Gaurko finala 19:30etan hasiko da eta finalaren ostean sari banaketa egingo da. Irabazleek aukera izango dute Bertizen astebukaera bat natur kirolak praktikatzeko. Bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatzen direnentsat, ostera, afaria izango da.

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Hik Galdeu 260 puntu
2. Petu Petuan 234 puntu
3. Errastisklas 233 puntu
4. Eli 165 puntu

FINALA

Hik Galdeu (DBH 4, Aranzadi ikastola)
Petu Petuan (DBH 4, Aranzadi ikastola)



Errastisklas eta Petu Petuan-en arteko lehia oso parekatua izan zen.

erreseinak



Pili Kaltzada
Ur-tximeletak
 Poesia

Pili Kaltzadaren aurpegia ezaguna egin zaigu azken aldian, "Bai Euskarari" kanpaina edo ETBko "Teknopolis" saioa direla eta. Olerkigintzarako duen zaletasunaren berri ez genuen, ordea, bere estraineko liburu argitaratu den arte. Ur-tximeletak honetan, Pili Kaltzadaren alderik intimoena ezagutu dugu. Berak adierazi duen moduan, barne sentimenduak adierazi asmoz, paperari eginko aitortpenak dira. Modu espontaneoan idatzitako poemak dira eta, horregatik, batzuk gaztelaraz eta beste batzuk euskaraz daude.

- Erein. 51 orr. 950 PTA



Bad F-Line
Cero
 Rock industrialia

2 kate edota Ministry eta Clawfinger taldeen ildo beretik, rock industrialaren inguruan murgiltzen dira Bad F-Line arrasatearrak. Makine lehen mailako garrantzia hartzen dute euren musikan, kitarrez gain, ordenagailuak, samplerrak eta loop aparailuak erabiltzen baitituzte sortzeko -halere, txalapartari ere egin diote tokia-. Punk eta pop estiloetara ere hurbildu dira 10 kantu eta bideo interaktiboa eskaintzen dituen CD honetan. Euren ekoiztutako estraineko diskoaren ondoren, "Cero" izeneko hau Madrileko Desobediencia etxearen eskutik argitaratu dute.

- Desobediencia. 2.000 PTA

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Baretasun. 2. Inurriak bizi diren leku. 3. Edukiera-unitate. Aiako seme. 4. Haurra. Elearen hasieran. Musika nota. 5. Jaingo egiptoarra. Estalkia. 6. Nafarroako udalerria. Tona. 7. Italiako hiri ezaguna. Antzinako Egiptoko hiria. 8. Bizkaiko herria. Gauerokoa. Bete. 9. Nitrogenoa. Hainbat, bezainbat. Utik! 10. Mesedez! Beharra.

Goitik behera

1. Liluratzearen ondorioa. 2. Basapiztia. Kontsonantea. 3. Su. Einstenioa. Ez eme. 4. Egunaren zatia, eguerditik ilunabarrera arte luzatzen dena. 5. Gizon izena. Lehen biak. Zango-atal. 6. Titanioa. Epeka. 7. Atari. Aluminioa. 8. Dozena erdi. Potasioa. Baldintzetan. Lehenengoa. 9. Ugari denaren nolakotasun, oparotasun. 10. Enea. Tema.

Soluzioa

(Vertical text, likely a list of solutions or references)

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



Zein plazatan daude garai batean egiten ziren idi-probetako probalekua eta harria?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Zenbat kapitulo izango ditu Bergaran grabatzen ari diren "Ertzainak" telesailak?
A- 10
B- 122
C- 13
- Domekan Uzarragako igoera jokatu da. Zein izan zen iazko irabazlea?
A- Ander Azagirre
B- Juan Manuel Garate
C- Ander Agirre
- Apirilaren 9an rock talde ospetsu batek bideoa grabatuko du Jamen. Izena?
A- Duncan Dhu
B- Red hot chili peppers
C- Soziedad Alkoholika

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zumelaga** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Noemi Areitio**rentzat izan da: Infernukua jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Noemiri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Etxebarrieta Azpikoa (Etxebarritta)** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

Zinezale amorratua, Forum Cinematographe taldeko partaidia da eta Aste Santu osterako, 1950eko hamarkadako komedien ziklo bat iragarri dabe. Azken urteotan Odol Emailleen Elkarteko epaimahaixan izan da Donostiako Zinemaldixan.

Zein pelikulari emango zontsan

Oscarra?

La delgada linea rojari, ikusten ez den horietakoa dalako.

Eta Oscarra irabazi dabenetatik zeini kenduko?

Benigni-ri baiño, Ian McKellan aktoreari (*Dioses y monstruos*) emango notsan.

Tango ala El abuelo?

Tango ez daukat ikusita...

Askotan ikusi dozun pelikula bat?

Lo que el viento se llevo, Encadenados...

Batere gustatzen ez jatzun klasiko bat?

Scorseren *El cabo del miedo*.

Zenbat pelikula dauzkazu etxian?

Zenbatzeke dauzkat, baiña 300 bat.

Bideo-klubean pelikularik alokatzen dozu?

Astero ez, baiña noizian behin bai.

Jenerorik gustokoena?

Pelikula ona bada, denak: komediak, musikalak, westernak...

Zuzendari bat?

Hitchcock, Vidor, Ophuls, Ozu...

Aktore eta aktorea bat?

Cary Grant eta Katherine Hepburn.

Eta ikusi ezin dittuzun beste bi?

Richard Gere. Meg Ryan ere ez jat gustatzen.

Zineari buruzko liburu bat?

"El cine segun Hitchcock", Truffaut-ena.

Telebisiñoko zine programa bat?

Garcirena eta TVE-2ko pelikula azpitu-tulodunak.

Antonio Zabala

Kritikari zer garrantzi ematen jatzu?

1etik 10era, 7.

Gustoko kritiko bat?

Angel Fernandez-Santos (El Pais).

Urtian zenbat pelikula ikusten duzu?

60-70 bat-edo.

Ikusittako azkena?

Gato negro, gato blanco.

Zine aretorik gustokoena?

Donostiako Astoriak.

Areto txixiak ala handiak?

Handiak nahixago.

Sesiñorik gustokoena?

Arratsaldekoa, 19:30etakoa.

Zinera joateko urteko sasoirik onena?

Urte guztian, udan be gustora joaten naiz.

Zinera bakarrik ala lagunduta?

Lagunduta hobe.

Jatorrizko bertsioa ala bikoiztutakoa?


Bikoiztutakoa.

Irten zara inoiz pelikula amaitu aurretik?

Bai, baiña oso gutxitan. Zinemaldixan behin Venezuelako pelikula batekin...

Festibaleko anekdotaren bat?

Behin Chabrolen pelikula bateko rolloren bat lapurtu zebe emanaldixa hasitta, filmea frantsesa zelako. Emanaldixa bertan behera geratu zen. **B**



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrea 13 behea ☎ 943 76 55 00



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**



AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6, behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



Errioxara irteera

Garai batean, argazkian agertzen den koardila honek Errioxara irteera egiten zuen urtero, udaberri aldera. Antza denez, itsaso aldera jo baino, nahiago zuten "ardoaren kostaldean" egun pasa egitea. Goizean goiz Bergaratik irten, bidean paradatxo bat edo beste egin eta ondoren, errioxar ardo gozoaz lagunduta, lagunartean majo bazkaldu hango bodegaren batean. Urteko ardo-uzta dastatu ondoren, alaitsu eta kantari bueltatuko ziren herrira. Pankarta eta guzti joaten ziren eta ziur gaude primeran pasatzen zutela. Goiko erretratuia "El mirador de la Rioja" deritzan tokian aterata ei dago, 1967. urtearen inguruan. Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Angel Azkarate, Sabin Ugarte, Javier Gantxegi, Iñaki Arregi, Antonio Zangitu, Javier Arteaga, Jose Mari Urrutia, Luis Mari Garitano eta Eduardo Muruamendaraz.

Makurtuta: Pedro Jose Gallastegi, Miguel Larrañaga, Pedro Garitano eta Roman Larrañaga.

Argazkia: Roman Larrañaga

OHARRA: Joan zen asteko Erretratu zaharrean agertzen ziren lau lagunak (biseradunak) antzuolarrak ziren eta ez bergararrak bertan adierazten zen moduan. C.D. Vergarak antolatutako autobusean joan ziren Donostiara, Bergara eta Michelinen arteko partidua ikustera, baina antzuolarrak ziren laurak.

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Gerta ezazu gorputza uda honetarako



Berreskura itzazu
edertasuna
eta harmonia
tratamendu
personalizatuekin

Dei egizu konpromiso barik eta behar beste informazio emango dizugu: **943 76 31 71**

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



ELKAR ELEKTRAGINTZA




Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAU EK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA
Paketeen Garraio eta Banaketa



Beti garaiz.